

**IRUÑEAKO ETA IRUÑERRIKO
INMIGRANTEEN
LANA ETA OSASUNA**

ipar•hegoa



IKASKETA
SINDIKALETARAKO
FUNDAZIOA

Egilea: Taller de Sociología sl (2005)
Carlos Vilches y Yolanda Arana

Lege gordailua Bi-269-06
Argitaratzailea: Ipar hegoa Fundazioa
Rekalde Zumarkalea, 62 behea
Tel.: 94 470 69 15
iparhegoa@labsindikatua.org

**Iruñeko eta Iruñerriko
immigranteen
Lana eta Osasuna**

AURKEZPENA

Zalantzarik gabe Euskal Herrian gero eta pertsona gehiago dago Europar Batasunaz kanpoko herrialdeetatik etorrira. Multinazionalak erraztasun guztia dute euren interesen arabera mugitzeko, herri pobretuetan jaiotako pertsonak, aldiz, atzerritarren legeen mende jartzen dituzte eta, hortaz, migratzera behartuta egoitez gain, euren giza eskubideak ez dira bermatzen. Halaber, mundu osoko milioika pertsona langileen erre-serba-armada bihurtu dira, esklabotza egoeran bizi direlarik. Arrazoi horiengatik, migrazio-fluxuak kapitalaren banaketaren ondorio zuzena dira, munduko ordena berrian nagusitu den arpilatze ekonomiko, politiko, kultural eta militarreko politikaren ondorio, hain zuzen ere. Migrazio-fluxuak sortzen dituzten herriak zein diren aztertzen badugu, kanpo zor izugarria dutenak direla ikusiko dugu, baita Munduko Bankuaren, Munduko Merkataritza Erakundearen, Merkataritza Libreko Itunaren eta Nazioarteko Moneta Fondoaren baldintzen mende daudenak direla.

Kontuan hartu behar da lan baldintzen egoera gero eta prekarioagoa dela eta langileen artean baztertuen dauden kolektiboak lan-esku merke gisa erabiltzen direla –ia esklaboen parean-; zirkunstantzia horiek eragin nabariak dituzte gure gizartean.

Langile hauek bizi duten egoera zaila ezagutzeko asmoz, **IPAR HEGOA** Fundazioak argitalpen hau atera du. Bertan, Iruñea eta Iruñerriko etorkinen lan eta osasun egoera aztertzen da, txosten hau Taller de Sociología s-l-k egin du, bereziki ikerketa sozial eta merkatu ikerketa kabineteak.

Txostenean ikus daiteke, 2003.urtean Nafarroan biztanleriaren %7 etorkinek osatzen zutela. Europar Batasunekoak ez ziren 35.000 pertsona daude; hau da, biztanleria aktiboaren %10 (28.000 pertsona). 2005. urtean, berriz, %8,5 igo da eta honen %42,5 egoera irregularrean bizi dira atzerritar legearen ondorioz. Iruñean, 17.739 pertsona daude errolatuta, biztanleriaren %9,1.

Baina datuetatik harago, txosten honek lan egoeraren urraketa eta honek osasunean sortzen dituen kalteak ezagutzera ematen ditu. Honen berri izateko, etorkinei eurei eman zaie hitza baita arlo honetan lan egiten duten erakundeei ere. Hauek guztiek, lehenengo pertsonan azaldu digute Nafarroan euren bizi proiektua aurrera eramateko dituzten oztopoak. Argi dago lana dela gizarte berriarekiko lotura egiten duena eta arazo nagusiak lana bilatzea eta esplotatuta lan egin beharra izaten dira.

Etorkinei egoera ahulagoan egoteagatik – batez ere paperik gabekoei- enpresaren aurka aldarrikapenak egitea zailagoa zaie, ez dute kultura sindikalik eta Nafarroan nagusi diren erakunde bien inplikazio eskasa kritikatzeko dute.

Txostenak etorkin gehiago dituen sektore garrantzitsuetatik hitz egiten du: eraikuntza, ostalaritza, garbiketza, etxeko lanak eta garraioak. Generoaren ikuspegia ere kontuan hartzen du, lan aukerak eta lan baldintzak baldintzatzen baititu.

Azkenik, adierazi nahi dugu **IPAR HEGOA** Fundazioak argitalpen honekin etorkinen egoerarekiko ezagutza eta sentsibilizazioa bultzatu nahi duela; baita ekintza sindikalean sartu ere. Euskal Herrian ekonomia eta demografian eragina duten langile talde hau ezin dugu albo batera utzi.

“Ez da kasualitatea immigranteak eta adoleszenteak izendatzerakoan partizipio aktibo bat erabiltzea, hain zuzen ere pertsona horiei ezarri zaien zigorra azpimarratzeko, hots, etengabe handik hona ibiltzen egon behar izateko zigorra, egoeren eta estatuen artean mugitzen egoteko zigorra, atsedean hartzeko eskubiderik gabe. Adoleszentea adoleszentsia-etapan dago, hau da, hazten ari da, nagusitzen ari da. Beraz, ez da ezer, ez haurra, ez heldua (...) Immigranteari dagokionez, berriz, ez da inola ere irudi objektiboa –horren inguruko diskurtso politiko-mediaticoek dioten bezala-, baizik eta operatzaile kognitibo bat, pertsonaia kontzeptual bat, gizartearen mugak sinbolikoki markatzeko eginkizuna egotzi zaiona. Immigrantea deitzen zaio, hots, immigratuta dagoela esaten zaio, zeren etorritakotzat hartua izateko eta gure artean erabat egoteko eskubidea ukatzen baitzaio, bai berari eta bai beraren seme-alabei; izan ere, seme-alabek gurasoen izaera ibiltaria heredatzen kondanatuta baitaude, bigarren edo hirugarren belaunaldiko immigrante bihurtuta” (Manuel Delgado, 1999).

Eskerrak: eztabaida-taldeetan parte hartu duten langileei. Elkarrizketatutako elkarte hauei: Federación de Asociaciones de Inmigrantes de Navarra, Paperak Denontzat eta SOS Racismo.

Aurkibidea

1.- Atarikoak

2.- Azterlanaren metodologia

3.- Nafarroako immigrazioaren unibertsoa eta testuingurua

3.1.- Immigrazioa, iraganean egindako ikerketen datuen bitartez

3.2.- Elkarrean eta erakundearen ikuspegi orokorra

3.2.1.- Egoerari buruzko diagnosiaren alderdiak

3.2.2.- Lanaren eremua

3.2.3.- Osasunaren eremuko bizipenak

4.- Azterketa sektoriala: eraikuntza, ostalaritza, garbiketa, etxeko lanak eta garraioa

4.1.- Eraikuntza

4.1.1.- Laneko testuingurua

4.1.2.- Laneko segurtasuna eta osasuna

4.2.- Ostalaritza, garbiketa eta etxeko lanak

4.2.1.- Testuinguru orokorra

4.2.2.- Laneko segurtasuna eta osasuna

4.3.- Garraioa

4.3.1.- Testuinguru orokorra

4.3.2.- Laneko osasuna eta segurtasuna

1 - Atarikoak

Txosten honen helburua hauxe da: aztertutako gaiarekin zerikusia duten eragile sozialen diskurtsoa zein elementutatik eraikitzen den aurkeztea, modu analitikoan, EBtik kanpoko immigranteek Iruñeko eta Iruñerriko lanaren eremuan duten egoera sozio-laboralari lotuta. Ikerketa kualitatibo hau **IPAR HEGOA** Fundazioaren eskariz egin da, “ex profeso”, **Laneko Osasunaren Nafar Institutuaren** (INSL) laguntzarekin. Helburuen dimentsioa eta egokientzat jotzen zen metodologia definitu dutenak, berriz, **Taller de Sociología** sl –gizarteari eta merkatuari buruzko ikerkuntza kabinetea- erakundeko teknikari arduradunak izan dira, eta baita LAB sindikatuaren immigrazio arloko arduradunak ere.

Abiapuntuan, ikerketaren helburu nagusia honela definitzen zen:

Iruñerriko pertsona immigranteek beren osasun egoera orokorraz eta laneko osasunaz duten pertzepzioa ezagutzea. Laneko arriskuen prebentziorako gauzatzen dituzten praktikak definitzea, osasunaren eremuko prestakuntza prebentiboan dituzten beharrak definitzeaz batera.

Adierazitako helburu horrez gain, beharrezkotzat jotzen zen beste helburu espezifiko batzuk ere definitzea, kolektibo sozial berezi horren errealitatea eta jarrerak sakonago ezagutu ahal izateko.

- Haien laneko elkarreraginaren esparrua definitzea, eta haien jatorrizko lan eta osasun kulturari izan dituzten aldaketak ezagutzea.
- Aztergai egon diren lanbide-sektoreetan ohikoak diren praktika prebentiboak definitzea, laneko arriskuei eta istripuei dagokienez.
- Osasunaren eremuan eta familiaren alorrean duten egoera espezifikoak. Ezinbestekoa da Osasun Mentalaren alorra aipatzea: urruntasuna, mendetasuna eta dolua; horrek guztiak lanaren eremuan duen eragina.
- Nafarroako osasun-sareaz eta lanaren eremuko baliabide asistentzialez duten ezagutza. Osasun miaketak enpresaren eremuan.
- Ikertutako kolektiboarekin etorkizunean egin beharreko lana oztopa dezaketen gai garrantzitsuak edo bigarren mailako gaiak detektatzea.

Helburu horietako batzuk immigranteen eta haien alde diharduten erakunde sozialen diskurtso espezifikoetatik ere jorratu ziren, era desberdineko erakunde horiek dituzten pertzepzioak alderatzeko xedez.

2 - Azterlanaren metodologia

Hasteko, gaiari buruz dagoen bibliografia aztertu eta berrikusi da, batez ere Nafarroari eta Iruñerriari buruzko azterlanak eta datuak. Bereziki azpimarratu dira Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Langintza Saileko taldeak egindako azterlanak, eta baita Iruñeko immigrazioari buruz berriki egindako azterlan demografiko bat ere –hiriko Udalaren Soziologia Atalak egina, 2004ko errodako datuak baliatuz-.

Proposatutako helburuak lortzeko bidean egindako bigarren urratsean, berriz, prospekzio-estrategiak metodologia kualitatiboa hartu zuen oinarritzat, azterlanaren filosofiatik begiratuta egokiena zelakoan. Hain zuzen ere, informazioa biltzeko erabili diren praktikak bi izan dira: **eztabaida-taldeak eta erdi-egitura-tutako elkarrizketak**. Metodologia kualitatiboa hemen erabiltzeko justifikazioa hauxe da: helburuen plan-teamendua mugagabea dela, hasierako aurreiritzirik gabekoa, eta prospekziarako parametro berriak aurkitzera eraman dezakeela, ikertutakoen eta haiek ordezkatzan dituzten elkarten eta erakundeen diskurtso irekia eta espontaneo ahalbidetuz.

Metodologia kualitatiboa –Jesús Ibañezek metodologia estruktural ere deitzen dio¹- bereziki egokia da motibazioak eta jarrerak aztertzeko; guri dagokionez, **Eztabaida-taldea** erabiliko dugu gehienbat, zeren helburu horretarako gehien balio duen praktika baita. Kontua zen **ahots** integratzaile² bat ematea gizon eta emakume immigranteen kolektiboari, inolako aurreiritzirik gabe. Horrek bidea ematen du jarrera eta motibazio nagusiak ezagutzeko, eta baita haien aldaerak ere –horrelakorik egonez gero-, haien elementu itxuratzzaileak definituz, ikertutako kolektiboaren jardueren funtsezko motibazioen eta jarreraren mundua azalertzeko xedez.

Taldeakako lanaren unibertsoari dagokionez, Iruñerriko immigranteen kolektiboan nagusi diren adin-tarteekin lan egin da, muturreko adin-taldeak baztertuz; horren asmoa izan da talde homogeenok eratzea, hots, lanbide eta bizimodu berdintsuak dituzten taldeak. Halaber, taldeen diseinua denborari dagokionez ere mugatu da, alegia, azken sei urteotan iritsi diren immigranteak soilik hartu ditugu kontuan; izan ere, denbora luzeagoa daramatenek aukera handiagoa izan dute praktika prebentiboetan eta laneko osasuna zaintzeko praktiketan integratzeko, orain dela gutxi iritsi direnek baino. Laneko eremuei dagokienez, berriz, hiru soilik aztertu ditugu³, biztanle immigranteek horietan duten presentzia handiagogatik eta azterlanak berak dituen mugengatik.

Hiru eztabaida-talde egin dira (3); horietako bakoitzak zortzi partaide izan ditu saio bakoitzeko⁴. Azkeneko diseinuak ezaugarri hauek izan ditu aukeraketa aldetik⁵:

1.- Ibañez, Jesús (1979), Más allá de la sociología. El grupo de discusión: técnica y crítica, Madrid, Siglo XXI.

2.- Romano, Vicente (1993), La formación de la mentalidad sumisa, Madrid, Los libros de la catarata.

3.- Emakumeen kasuan, hiru eremu aukeratu dira: ostalaritza, garbiketa eta etxeko lanak, bai emakumeen presentzia handia delako horietan eta bai eremu horiek elkartu egiten direlako batzuetan, aldi berean (eremu batean baino gehiagotan aldi berean lan egitea –enpleguaniztasuna-).

4.- Saioak talde-bileretarako egokitutako areto batean egin dira, azterlana egiteaz arduratu den enpresaren -Taller de Sociología si Iruñeko egoitzan. Taldeen preskriptorea ikerketa zuzentzeko eta aztertze arduraduna izan da, hots, Carlos Vilches Plaza (Soziologian doktorea)

5.- Talde-dinamiketan parte hartu duten pertsonen azkeneko aukeraketa taldeak eratze lanetan espezializatutako enpresa batek egin du: Madrilgo CR (Centro de Reuniones).

1. Taldea.- Eraikuntzako langileak: batez besteko adina duten gizonak, Nafarroan sei urte baino gutxiago daramatenak. Haien erdien jatorria Hegoamerika da, eta gainerakoena Europa eta Afrika. Gaztelaniaz hitz egiteko gai dira. Enpresa gehienak txikiak edo ertainak dira (etxebizitzaren eraikuntza eta obra publikoak). Kontratu mota desberdinak (batzuk kontraturik gabe ari dira, eta legearen aldetik egoera irregularrean daude).

2. Taldea.- Ostalaritza, Garbiketa eta Etxeko Lanak. Emakumeak soilik, batez besteko adinekoak. Sei urte baino gutxiago Nafarroan. Bost Hegoamerikakoak eta gainerakoak Europako Ekialdeko herrietakoak. Enpresa tamaina desberdinak. Kontratu mota desberdinak (batzuk kontraturik gabe ari dira, eta legearen aldetik egoera irregularrean daude).

3. Taldea.- Garraio sektoreko langileak. Batez besteko adina. Sei urte baino gutxiago Nafarroan. Jatorri desberdinak. Enpresa tamaina desberdinak. Garraio handia eta txikia. Kontratu mota desberdinak (batzuk kontraturik gabe ari dira, eta legearen aldetik egoera irregularrean daude).

Talde-bilerak egin ondoren, hiru elkarrizketa egin ziren Iruñerrian diharduten immigranteen elkarte nagusietako pertsona esanguratsuekin, eta baita ikertutako biztanleriarekin lan egiten duten kolektibo sozialen bi kiderekin ere. Elkarrizketa bakoitza horretarako beren-beregi definitutako gidoi baten arabera gauzatu zen. Azterlanean parte hartu duten erakundeak hauexek izan dira: Paperak Denontzat, SOS Racismo eta Federación de Asociaciones de Inmigrantes de Navarra⁶.

Taldeetan sortutako testuak hitzez hitz transkribatu dira, gero aztertzeko eta hemen aurkezteko xedez; horretarako, testuak gaien arabera sailkatu dira, modu hierarkizatuan, adostasun-azterketaren bitartez.

Txostenaren kapituluaren antolaketa atal hauen arabera egin da: hasteko, Nafarroako immigrazioaren tesuingurua aurkezten da, aurretik egindako azterlanen argitan; horren ostean, oraingo egoera definitzen duten ezaugarriak aurkezten dira, hiru erakunde sozialei egindako elkarrizketetan egindako gogoetak abiapuntutzat hartuta. Hurrengo atalean, eztabaida-taldeetan parte hartu duten langileen egoera sozio-laboralaz aztertzen dugu, eta baita haiek adierazitako iritziak eta beharrak ere. Ikerketa soziologiko honek aztertu dituen hiru lanbide-sektoreen azterketak banan-banan aurkezten dira, ulergarriagoak izan daitezen.

6.- Eskerrak Centro Argentino-ko eta FAINEko Marcelori, Paperak Denontzat-eko Javierri eta SOS Racismoko Ainarari, aztertutako gaiari buruz egindako ekarpenegatik; gainera, eskerrak eman behar ditugu haien kolaborazio desinteresatuagatik eta elkarrizketak izatea adeitasunez onartzeagatik.

3 - Nafarroako immigrazioaren unibertsoa eta testuingurua

3.1.- Immigrazioa, iraganean egindako ikerketen datuen bitartez

Nafarroaren eremuan, ikerketa asko ditugu Foru Komunitateko immigrazioaren egoerari eta azken urteotako bilakaerari buruzko diagnosi kuantitatiboa egiteko. Ikuspegi intimistagoa eta kualitatiboagoa, haatik, askoz ere urriagoa da; horregatik, lan honen prospekzio-izaeraren oinarrian Soziologia interioristaren zentzua aurkitzen dugu. Miguel Laparra-ren koordinaziopean NUPeko Gizarte Langintzako Sailak egindako eta 2005ean aurkeztutako ikerlanaren konklusioen ildotik, Nafarroako immigrazioaren egoera definitzen duten ezaugarriak parametro hauetan laburbil daitezke:

- Immigrazioa Nafarroako Komunitateko biztanleriaren %7 zen 2003 urtean; immigranteei dagokienez, 35.000 biztanle EBtik kanpokoak ziren. Biztanleria aktiboaren ikuspuntutik begiratuta, kopuru hori %10 da (28.000 EBtik kanpokoak). 2005 urterako, berriz, kopuru hori biztanleria osoaren %8,5 dela kalkulatu genezake. Jatorri nagusia Latinoamerika da (batez ere Andeetako herriak), eta haren ostean Magreb, Europako Ekialdea eta Saharaz beherako Afrika. Hamar immigrantetatik bederatzi 2001aren ostean iritsi dira Nafarroara.
- Langile immigranteen %42,5 irregularrak dira, eta hamarretatik lauk berrogei lanordu baino gehiago egiten dituzte astean. Haien batez besteko soldata Lanbide arteko Gutxieneko Soldata baino 1,5 aldiz handiagoa da (SMI: 490 Euro), baina langile nafarrena baino txikiagoa da.
- Nafarroaren hazkunde ekonomikoa da erakarpen-faktore nagusia. Hala eta guztiz ere, langabezia %14,7 da gizonezko immigranteen artean eta %16,7 emakumezkoen artean. Hogeitaz biko gutxiagoko gazteek zailtasun handiagoak dituzte lan merkatuan sartzeko: haien langabezia-tasak %52 dira, eta emakumezkoak dira egoera hori gehien pairatzen dutenak.
- Biztanle horien herenek uste dute nafarrek diskriminatu egiten dituztela, gai hauetan: etxebizitza eskuratzeko eta lan merkatuan sartzeko aukeretan, tabernetan, dendetan eta poliziarekin eta Barne Ministerioko funtzionarioekin dituzten harremanetan.
- 2003-2004 ikasturtean, 7.000 ikasle atzerritar zeuden matrikulatuta Komunitateko ikastetxeetan. Estatuko hirugarren Erkidegoa da, ikasle immigranteen presentziari dagokionez (Balear Uharteren eta Madrilaren atzetan).
- Immigranteen %9 beren etxebizitzaren jabe dira, hau da, 3.000 pertsona inguru. %80 alokatutako etxebizitzetan bizi dira.

Ikuspuntu kualitatibotik begiratuta, eta immigranteen kolektiboak Nafarroako errealitatean duen eragin sozio-ekonomikoari dagokionez, hauxe dio M. Laparrak "Immigrazioaren eragina transformazio bidean ari den gizarte batean" izaneko txostenean:

Azterketa demografikoaren ildotik zera aipatzen da: EBtik kanpoko immigrazioak Nafarroako jaiotze-tasa igo eta biztanleriaren piramidea gazteagotu duela. Gainera, haurren etorrerak bidea eman du immigranteen kolektiboak gehiago integratzeko. Halaber, senar-emazte mistoen kopurua ere igo dela egiaztatu da,

eta horrek bizkortu egin du integrazioa, halako moldez non sortu diren erreferenteak ez baitira Frantziako eredu asimilatzaileenak (gogoan izan horren eraginez gaur egun azaleratzen ari diren gatazkak), eta ezta kultur aniztasun angolosaxoniarrarenak ere.

Bigarrenik, azpimarratzekoa da Nafarroan nabaritu den eragin ekonomikoa eta horren ondorioz gertatzen ari den transformazioa, aldaketa demografikoak eta immigranteen eraginak bultzatuta, immigrante horiek ekoizleak, kontsumitzaileak eta hiritarrak diren aldetik. Ekoizpenaren zuzeneko eta zeharkako igoera haien ekarpenari egotzi behar zaio, neurri batean. Immigrazioak barneko eskaria igoarazi du, nahiz eta kontsumo-arau orokorrera iristen direnak gutxi diren oraindik ere (badira kontsumoa murrizten duten faktoreak, hala nola: familiak haien jaioterrian mantentzeko dirua bidaltzeak dakarren mendetasuna, soldata txikiak, eta etxebizitza ordaintzeak dakarren gastu handia).

Immigranteak zerga-bilketako subjektu pasiboak dira, bai sortzen dituzten diru-sarrerengatik eta bai egiten dituzten gastuengatik. M. Laparrak dioenez (2005): “esplizituagoa izan da Gizarte Segurantzako kotizazioetan izandako parte-hartzea, zeren lagungarria izan baita Estatuaren kontuak urtero arintzen dituen superabita lortzeko”. Bukatzeko, txostenaren arabera, kolektibo horrek 2003ko BPGri egin zion ekarpena %2,5 izan bide zen.

Aurrekoaz gain, bada kontuan hartu behar den beste faktore bat, alegia: azken urteotan Nafarroara iritsitako biztanleria Hezkuntzaren eremuan eta Zerbitzu Sanitario eta Sozialetan izaten ari den eragina, zeren indarrean dauden eskubideek ia unibertsal bihurtu baitute haien erabilera.

Lanaren alorrari dagokionez, biztanleria aktiboa gazteagotu egin dela egiaztatu da: immigrante aktiboen %47k hogeita hamar urte baino gutxiago dituzte; beraz, adin-tarte horretan daudenen proportzioa bertoko biztanleena baino bi aldiz handiagoa da. Eragina handiagoa da kualifikaziorik gabeko lanbideetan: kualifikatu gabeko langileen erdiak baino gehiago atzerritarrak dira. Gainera, immigranteek are gehiago malgutu dute lan merkatua: Nafarroako aldi baterako lanaren %4 hartu dute beren gain. Immigranteen %72 aldi baterako lanetan ari dira. 2000 urtean kalkulatu zen Nafarroako ekonomia ezkutuan 32.000 langile zeudela⁷, zeinetatik 4.000 atzerritarrak omen ziren (zortzitatik bat). Bukatzeko, ez dirudi immigrazioa eragin negatibo esanguratsua izaten ardi denik laneko istripuen tasan; izan ere, tasa hori langile nafarrena baino apur bat handiagoa baino ez da. Eragina handiagoa da heriotza-istripuen kasuan: 2003 urtean hildako langileen %20 atzerritarrak ziren.

Bukatzeko, M. Laparraren lanak immigrazioak etxebizitzaren sektorean duen eragina aztertzen du, baina alderdi horrek ez du hainbesteko interesik gure azterlanarentzat, zeren ez baitago estu lotuta gure ikerketaren helburuarekin.

Iruñeko 2004ko eroldari buruz Gregorio Urdaniz soziologoak egin duen azterlana oinarritzat hartuta - Iruñeko Udalaren Soziologia Saila-, gure ikerketarentzat interesgarrien diren datuak aurkeztuko ditugu jarraian.

2004ko ekainean, Iruñeko eroldan 17.738 pertsona atzerritar zeuden erregistratuta, hau da, biztanleria osoaren %9,1 (%0,96 Europako Batasunekoak dira). Erroldan ehun eta hogeitako hiritarrak daude; ekua-dortarrak dira presentzia handiena dutenak -5.589-, eta haien atzean kolonbiarrak -1.914-, bulgariarrak -1028-, portugaldarrak -880- eta perutarrak -718-; herri multzo hori, guztira, biztanle immigrante guztien

7.- CEN, UGT, y CCOO (2000). “Evaluación de la economía sumergida o trabajo irregular en Navarra”. Pamplona, Servicio Navarro de Empleo.

%57,1 da. Biztanleria eremu geografikoen arabera sailkatuz gero, gehiengoa latinoamerikarrei dagokie: 60,5%; bigarren postuan Europako Ekialdeko herriak daude, baina haien ehunekoa askoz ere txikiagoa da: %13,3.

Jarraian, Nafarroako hiriburuan erroldatutako atzerritar guztiak barne hartzen dituen taula bat ikus daiteke, datuen laburpen gisa. Taula atzerritarren jatorri geografikoaren arabera dago sailkatuta.

1. Taula- Iruñean bizi diren atzerritarren banaketa, eremu geografiko handien arabera (2004ko ekaina)

EREMU GEOGRAFIKOA	Atzerritarren kopurua (2004ko ekaina)	
Latinoamerika	10.738	60,5
Iparramerika	202	1,1
Europako Batasuna	1.893	10,7
EBtik kanpoko Europa ⁸	2.359	13,3
Magreb	1.097	6,2
Afrikako gainerako herriak	913	5,1
Asia	503	2,8
Ozeania	9	0,1
Nazionalitaterik gabe	24	0,1
Aipatutako 9 eremuetako atzerritarrak, guztira	17.738	99,9

Iturria: Iruñeko Udalaren Soziologia Saila

Foru Komunitateko hiriburuan erroldatutako atzerritarren adina erreferentziazat hartuta, biztanle immigranteen %62 19 eta 40 urte bitarteko adin-tartean daude, eta hirugarren adineko pertsonak %1,6 baino ez dira. Immigranteekin alderatuta, biztanleria autoktonoa zaharragoa da: 65 urtetik gorako iruindarrak %18,6 dira, eta immigranteak %1,6 soilik.

Hurrengo taulak adinaren eta sexuaren datuak jaso ditu zehaztasunez, hau da, erroldatutako biztanle atzerritarrei buruzko udal azterlanean ageri diren datu guztiak.

2. Taula- Iruñeko atzerritarren banaketa, adin-tartean eta sexuaren arabera (2004 ekaina)

ADIN TARTEA	Gizonak	%	Emakum.	%	GUZTIRA	%
0-18	1.596	18,1	1.596	17,9	3.192	18
19-40	5.525	62,6	5.403	60,7	10.928	61,6
41-65	1.607	18,2	1.724	19,4	3.331	18,8
65 baino gehiago	103	1,2	184	2,1	287	1,6
GUZTIRA	8.831	100,1	8.907	100,1	17.738	100

Iturria: Iruñeko Udalaren Soziologia Saila

Sexuari dagokionez, gizonak nagusi dira erlijio mahometarreko herrietatik etorri direnen artean, eta baita Afrikako herri batzuetatik, Europako Batasunetik eta Bulgariatik etorritakoen artean ere. Emakumeak, berriz, gehiago dira Karibeko herrietatik, Brasildik eta Ekialdeko herri batzuetatik –Ukraina eta Errusia, adibidez- etorritakoen artean.

8.-Europako Batasuneko herriak hartzen ditu barne, eta baita Suitza, Norvegia eta abar..

3. Taula- Iruñeko atzerritarren banaketa, auzoen arabera (2004 ekaina)

AUZOAK	Biztanleak, guztira	Atzerritarrak	Atzerritarren % Auzoko osoko biztanleria
Alde Zaharra	12.668	1.956	15,4
Zabalgunea (Ensanche)	23.311	2.021	8,7
Donibane	22.134	1.803	8,1
Ermitagaña-Mendebaldea	17.948	1.232	6,9
Iturrama	24.873	1.437	5,8
Milagrosa	14.176	2.086	14,7
Azpilagaña	7.885	718	9,1
Txantrea	19.264	1.158	6
Errotxapea	22.767	2.180	9,6
San Jorge	11.165	1.429	12,8
Buztintxuri	1.405	300	21,4
Etxabakoitz	5.525	933	16,9
Mendillorri	11.299	452	4
GUZTIRA	194.420	17.705	9,1

Iturria: Iruñeko Udalaren Soziologia Saila

Azkenik, hiriko auzoei begiratu, Udalaren Soziologia Sailaren azterlanak hauxe adierazten du: 2004 urtean, atzerritarren proportziorik handiena zuen auzoa Buztintxuri zen, zeren immigranteak horko biztanleriaren %21,4 dira; auzo hori eraikitze bidean dago, baina Santa Engracia eta Santa Lucia ere hartzen ditu barne (iraganeko biztanleria etnikoa desagertuta). Etxabakoitzek %16,9 ditu, Alde Zaharrak %15,4, Milagrosak %14,7 eta San Jorgek %12,8; bestalde, immigrante gutxien dituen auzoa Mendillorri da. Azterlanak dioenez, atzerritarrak modu uniforme banatuta daude hiri osoan, eta, beraz, ezin esan daiteke hiriko guneren batean “ghettorik” dagoenik.

3.2.- Elkarrean eta erakundearen ikuspegi orokorra

3.2.1.- Egoerari buruzko diagnosiaren alderdiak

Elkarrizketatutakoak ados daude azterketaren abiapuntua zein izan behar den esaterakoan, alegia, lana dela immigrazioa ulertzea ahalbidetzen duen ardatza edo ildo gidaria; izan ere, immigrazioaren ezaugarri nagusia beraren izaera ekonomikoa da. Jarduera eta arazo guztian lanaren inguruan mugitzen dira; integrazioarako jarduerak ez dute inolako zentzurik lana kontuan hartu ezean. Epe luzera, lan-jarduera da immigranteen eta harrerako gizartearen arteko lotura soziala eratzen duena. Nafarroako Foru Komunitateak –EAEk bezala- oso irudi ona du bizi-kalitatearen, egoera ekonomikoaren eta enpleguaren aldetik, eta horrek erakarpen-polo bihurtzen du bere bizi-egoera hobetu nahi duten atzerritarrentzat.

Elkarrizketatu ditugun pertsonen iritziz, eta immigrazioaren fenomenoak denboran zehar izan duen bila-kaera aztertzean, Iruñeko eta Iruñerriko immigrazioaren mugimendu sozialean hiru fase bereiz daitezke:

1.- Hasieran, borroka guztien ardatza “**legezketasuna**” izan zen, hots, paperak lortzea ahalik eta irregular gehientzat, eta, horrekin batera, atzerritarren lege justu eta berdintasunezko bat eskuratzea, hots, legezko lana ahalbidetuko zuen lege bat eskuratzea. Gobernu sozialistak baimenak zabaldu ondoren, eta irregularitasunean bizi den kolektibo bat berriz sortu arte (oraingoa baino handiagoa dena eta beste gatazka ageriko bat sortzen duena), helburuak beste maila batera pasatzen dira.

2.- Beharrezkoa da immigranteak gizartearen “**begien aurrean jartzea**”; immigranteek presentzia izan behar dute gizartearen esparru guztietan –termino horren dimentsio osoan-, lanaren esparruaz gain (horrek ez du esan nahi laneko eskubideen berdintasunaren alde borrokatu behar ez denik), hiritar gisa dagozkien eskubideak eta betebeharrak erabili ahal ditzaten. Ekimen horren bidez lortu behar dena da harrerako gizarteak ez ditzala immigranteak “lan indar” soiltzat hartu, marxismoaren zentzu klasikoan, bai-zik eta aurrera egin nahi duten eta beren bizi-kalitatea hobetu nahi duten subjektutzat, gainerako hiritar-rak bezala. Eta orduan sortzen dira tirabirak eta azaleratzen dira aspalditik ezkutuan zeuden gaitzespen-jarrerak, hau da, batzuen hobekuntzak nolabaiteko berdintze-efektua lortzen duenean, edota besteekiko lehia dakarrenean.

3.- Etorkizunari begira, hirugarren maila benetako **berdintasuna** da (benetan berdintzea); bertokoek baztertzen dituzten lanpostuetatik irten eta haien prestakuntzagatik legezkiekeen lan kualifiatuetara iritsi ahal izatea (gainera, neurri handi batean, immigranteak bertokoak baino prestatuago daude lanpostu horietarako). Hau da, “hemengoa” izatea bai betebeharreran eta bai eskubideetan; ekintza horiek ageriko-agoak izango dira hurrengo belaunaldian, eta integrazioerako ekintzak aldatzen ez badira baliteke Frantzia berriki gertatu diren arazoak hemen ere sortzea. Erakundeen rola desberdina izango da orduan: errebindikazioen eremutik kulturaren eta harremanen eremura pasatuko da, eta baita herri bakoitzeko kolektiboen eskubideen alde borrokatzera ere.

Immigranteak bertokoekin berdindu ahal izan daitezten, ezinbestekoa da elkar gehiago ezagutzea, eta bi kolektiboen arteko elkarreraginaren oinarrian dauden estereotipoak eta mitoak haustea; gizarte berri bat sortu behar da, desberdintasuna eta mestizaia soziala abiapuntutzat hartuta. Immigrantea pertsona moduan ikusi behar dugu, bere kultur ondarearekin, lan egiten duen subjektutzat soilik hartu beharrean; horretarako, jakin beharra dago immigranteak ez direla –normalean- beren jaioterriko beheko maila sozialetik etortzen, baizik eta prestakuntza duten eta bere ezagutza profesionala garatu nahi duten maila sozialetatik.

Arazo larriena “**irregulartasuna**” da, desberdintasunezko egoerak sortzera eramaten baitu; izan ere, immigranteen premia ekonomikoak eta bizirik irauteko beharrak arrisku handiko baldintzetan lan egitera eramaten ditu, ekonomia ezkutuari baitan, horrek bertoko enpresariei dakartzkien onura ekonomikoekin.

Hala eta guztiz ere, eta immigranteen hobekuntza ekonomikoaren ondorioz, erakunde batzuek haien aurrean duten jarrera aldatzen ari da (*immigrantea merkatuko helburutzat hartzen da, nolabait, lehengo “ikusezintasunaren” orde*); horixe gertatzen zaie, adibidez, aurrezki-kutxeri eta bankuei, dendei, marka komertzialei, zerbitzuen enpresei, eta gisa berekoei, zeren merkatuko eta publizitateko estrategiak garatzen ari baitira etorkinen kapital ekonomikoa erakartzeko. Ekintza horietan errentagarritasunaren analisisa nagusitzen da, argi eta garbi, eta **kostu-etekin ekuazioaren** ikuspuntutik azter daiteke: zer kostu du jarrera aldaketa horrek, begiratzeko modu berri horrek? Eta zer etekin du (ekonomikoa, normalean) haren berdintasun sozialak? Garbi dago, jakina, etekina kostua baino handiagoa denean politikak aldatu egiten direla (azkenean, determinismo ekonomikoa nagusitzen da beti).

Immigranteen aldeko interesa hazi egingo da bozkatzeko eskubidea lortzen dutenean (EBtik kanpoko immigranteez ari gara orain); hori da oraingo eztabaidan falta den elementu nagusia, baina eskubide hori lortzen dutenean hauteskunde-merkatuak haiengana ere begiratu du. Politikaren eremuan, eta eremu sozial batzuetan, immigranteak bigarren mailako hiritar sentitzen dira. Sistematik baztertuta ikusten dute beren burua, “*outsider*”⁹ sentitzen dira hirien edo herrien esparruetan; izan ere, esparru horietan ibiltari sen-

9.- “Outsider” deritzan ideia Manuel Delgado erabiltzen duen zentzuan hartzen dugu: Manuel Delgado (1999), *El animal público*, Bartzelona, Anagrama.

titzen dira egunero, “*leku ez den leku*”¹⁰ batean (“no lugar”), hau da, erabili arren berena ez den leku batean, zeinak ezin baitie inolako topofiliarik edo bestelako lotura sozialik sortu.

Manuel Delgadok¹¹ dioenez, immigrantearen kontzeptua berak baditu hausnartu beharreko konnotazio linguistiko eta sozialak: “Ez da kasualitatea immigranteak eta adoleszenteak izendatzerakoan partizipio aktibo bat erabiltzea, hain zuzen ere pertsona horiei ezarri zaien zigorra azpimarratzeko, hots, etengabe handik hona ibiltzen egon behar izateko zigorra, egoeren eta estatuen artean mugitzen egoteko zigorra, atsedean hartzeko eskubiderik gabe. Adoleszentea adoleszentsia-etapan dago, hau da, hazten ari da, nagusitzen ari da. Beraz, ez da ezer, ez haurra, ez heldua (...) Immigranteari dagokionez, berriz, ez da inola ere irudi objektiboa –horren inguruko diskurtso politiko-mediaticoen dioten bezala -, baizik eta operatzaile kognitibo bat, pertsonaia kontzeptual bat, gizartearen mugak sinbolikoki markatzeko eginkizuna egotzi zaiona. Immigrantea deitzen zaio, hots, immigratuta dagoela esaten zaio, zeren etorritakotzat hartua izateko eta gure artean erabat egoteko eskubidea ukatzen baitzaio, bai berari eta bai beraren seme-alabei; izan ere, seme-alabek gurasoen izaera ibiltaria heredatzen kondentatuta baitaude, bigarren edo hirugarren belaunaldiko immigrante bihurtuta”.

3.2.2.- Lanaren eremua

Paperak Denontzat kolektiboaren kalkuluen arabera, azken erregularizazio prozesuaren ondoren hamalau mila pertsona inguru geratzen dira Nafarroan egoera irregularrean (legeztatu gabe), eta horien erdiak –gutxienez- Foru Komunitateko hiriburuan bizi dira. Horren eraginez, hainbat pertsonak ekonomia ezkutu lan egin behar dute, kontratu-erregulaziorik ez izateak dakartzan abusuen mende.

Egoera horren eraginez, Nafarroako SOS Racismo elkartera iristen diren salaketa gehienak egoera irregularrean dauden langileen aldetik datoz (erakundeetan nahiago dute “ilegal” kontzeptua ez erabiltzea). Salaketa gehienak administrazioarekin eta lanaren eremuarekin dute zerikusia (%34,83). Gehien salatzen den egoera soldata ez kobratzea da, baina horren tramitazioa konplexua da, salatzailerik gehien izaera irregularrean eraginez; izan ere, egoera horrek oso zail bihurtzen du salatzaileraren eta salatutakoaren arteko lan-harremana frogatzea (nominarik ere ez dute, ezta –jakina- kontraturik ere). Aparteko orduak ez kobratzea eta 40 orduko lanaldiak dira elkarrizketatutako erakundeetara iristen diren beste salaketa batzuk¹². Orobat, azpimarratzekoa da salaketen %14,84k hedabideekin dutela zerikusia, haien informazioetan immigrantei ematen dieten tratamenduak eraginda. Bukatzeko, demanden %7,4 etxebizitzarekin zerikusia duten abusuei eta bazterketei buruzkoak dira.

Oro har, erregularizatuen egoera ez da hain latza izaten. Generoari dagokionez, berriz, badirudi emakumeek arrisku handiagoa dutela abusuek pairatzeko, aurkeztutako salaketak ikusita (%56,67)¹³. Ondorengo taulak Nafarroako SOS Racismo-n 2004an aurkeztutako salaketak erakusten ditu; arazoaren zati bat baino ez

10.- Augé, Marc (1998), *Los no lugares. Espacios de anonimato. Una antropología de la sobremodernidad*, Bartzelona, Gedisa.

11.- Lehen aipatutako liburua.

12.- Egoera horiek bai SOS Racismo-en eta bai Paperak Denontzat-en antzematen dira.

13.-Nafarroako arrazakeriari buruz SOS Racismok 2004an egin zuen txostenak zera dio emakumeen lanari buruz: “emakume immigranteek oso lan-eremu konkretutan lan egiten dute, hain zuzen ere oso gutxi baloratzen diren hiru eremutan: ostalaritzan, etxeko zerbitzuan eta prostituzioan. Ostalaritzara iristen hasi dira, eta horrek azalera ahalbidetu die kolektibo horretako emakumei, lan kontratua lortu ahal izan dutelako. Etxeko zerbitzuaren eremuan –bai lan egiten duten etxean bizi direnen kasuan eta bai hortik kanpo bizi direnen kasuan-, berriz, babesgabetasuna eta lan-prekarietatea oso larriak dira, eta sektore hori arautzen duen araudia da, hain zuzen ere, horrelako egoera sortzera eramaten duena, zeren segurtasunik gabeko eta babesgabetasun sozial eta juridiko nabarmeneko baldintzak legitimatzen baititu, gainerako langileen erregimenetan baino askoz ere neurri handiagoan. Baliozkotzat jotzen da ahozko kontratua, eta lan harremanaren oinarria alderdien elkarrenganako konfiantza da. (...) Sektore horretako abusuei buruz salaketa gutxi iristea emakume horiek agerian ez egotearen ondorio da”.

izan arren, lagungarriak izan daitezke immigranteek gehien pairatzen duten diskriminazioaren ezaugarriak ezagutzeko.

4. Taula.- SOS Racismo-ra iritsitako salaketak, (2004) gaien arabera.

	Emakumeak	Gizonak	GUZTIRA	%
Etxebizitza	10	2	12	7,74
Lana	12	14	26	16,77
Erasoak	4	2	6	3,87
Aisia	2	0	2	1,29
Instituzioak	16	12	28	18,06
Polizia	6	6	12	7,74
Hedabideak	17	6	23	14,84
Beste batzuk	21	25	46	29,68
GUZTIRA	88	67	155	100

Iturria: Nafarroako SOS Racismo

Salaketa jartzen duen pertsonaren jatorriari dagokionez, presentziarik handiena Latinoamerikako herrietatik datozenei dagokiela ikus daiteke (%53,5). Halaber, garrantzitsua da gora egin dutela immigranteen kontrako egoera arrazistengatik bertoko herritarrek jarri dituzten salaketek (%25,16).

5. Taula.- SOS Racismo-n jasotako salaketen sailkapena (2004), sexuaren eta jatorriaren arabera

JATORRIA	Emakumeak	Gizonak	GUZTIRA	%
Latinoamerika	40	45	83	53,55
Magreb	6	11	17	10,97
Saharaz beherako Afrika	1	1	2	1,29
Ekialdeko Europa	8	2	10	6,45
Asia	-	-	-	-
Bertoko herritarrak, ijitoak ez direnak	29	10	39	25,16
Bertoko ijitoak	4	-	4	2,58
Beste batzuk	-	-	-	-
GUZTIRA	88	67	155	100
%	56,67	43,27	-	-

Iturria: Nafarroako SOS Racismo

Beste alde batetik, elkarteek diotenez, immigranteek badakite lanbide-prestakuntza sindikatu handien kontrolpean dagoela eta haiengana jo dezaketela prestakuntza-ikastaroak jasotzeko; dena dela, lanaldi luzeak dituztenez –diote-, zaila gertatzen zaie horrelako birziklapen-ikastaroetara joatea. Haien eskarietako bat hau da: jatorrizko ikasketen edo lanbideen tituluen homologazioa lortzea; hori lortu ezean, kualifikaziorik gabeko lanetan jardutea da haien aukera bakarra.

Erakundeek kritikatzan dute lan baldintzen inguruko errebindikazioa nahiko ahaztuta dagoela bi sindikatu nagusien aldetik. Horregatik, alderdi hori erakunde eta sindikatu txikien esku dago. Elkarre horiek laguntzeko ikuspegiz lan egiten dute, immigranteengandik gertu jardunez eta paternalismorik gabe, sindikatu handiek ez bezala. Jarduera sindikalari dagokionez, immigrante gehienek ez dute kultura sindikalik, eta ordezkari sindikalekin duten harremana noiz behinekoa soilik da. Elkarriketatutako erakundeen iritziz,

mugimendu sindikalean beharrezkoa da immigranteekiko harremanetan espezializatutako teknikariak prestatzea, kultur arteko ikuspegitik lan eginez eta aurreiritziak baztertuz; prestakuntzarako tailerrak eta mintegiak egitea proposatzen da, edota topaketa kulturalakoak.

Generoaren ikuspegitik, ahaztutako (baina presentzia handiko) sektore bat kontuan hartzeko beharra azpimarratzen da, hots, sexuaren industria; izan ere, prostituzioa emakume immigrantez baliatzen da gehienbat, haien egoerak horretara bultzatzen baititu¹⁴. Halaber, egiaztatuta dago etxeko langileek presio-egoerak eta jazarpen sexuala pairatzen dituztela, eta salatzen direnak benetan gertatzen direnak baino askoz ere gutxiago direla: egoera horiek eremu pribatuan gertatzen dira, lekukorik gabe, eta horrek -egoera horiek dakarten lotsarekin batera- nabarmenki oztopatzen ditu balizko ekintza legalak.

Horren ondorioz esaten da administrazioak bere jardunaren ardatza aldatu beharko lukeela, legalismotik eta kontroletik posibilismora pasatuz; baliabide publikoak ezagutzeko eta erabiltzeko bidea erraztu beharko lieke immigranteei, hiritarrak diren aldetik horren eskubidea baitute.

Bukatzeko, elkarrizketetan planteatu zen zein ote ziren kolektiboan sortzen ari diren arazoak. Gehien aburuz, arazoak immigrante gazteenen integratzeaz ezetik etor litezke (baliteke Frantziako kasuaren sindromea egotea). Hamasei urte betetzen dituztenean, gazte horiek lan merkatuan sartu nahi dute, gazte autoktonoek ez bezala, zeren azken horiek denbora luzeagoa ematen baitute ikasketetan (unibertsitatea bukatu arte). M. Laparraren azterlanak erakusten duenez, langabezia larriagoa da gazteen artean, eta horrek gatazkak sor ditzake alor publikoan; gazteen bandak etorkizunak ekar dezakeenaren adierazle bat baino ez dira. Horregatik, gazteak lan merkatuan integratzea lehenetsi beharreko lan-ildoetako bat da. Halaber, ez da ahaztu behar noraino den beharrezkoa harrerako gizartean txertatzeko eta berarekin harremanak izateko sare (gizarte ehuna) bat eraikitzea. Aisiatik eta kulturetatik lan egitea, hemengoekin eta beste kultura batzuetatik etorri direnekin, funtsezkotzat hartzen da gatazka sozialaren prebentzioa planifikatzeko. Zeregin horretan elkartu behar dira Administrazioa, erakunde sozial, politiko eta sindikalak eta hiritarrak berak.

3.2.3.- Osasunaren eremuko bizipenak

Seguratasunaren eta osasunaren eremuko prestakuntzari dagokionez, normalean langileek ez dute horrelako prestakuntzarik izaten; gainera, haien jaioterrietan ez dute prebentzio kulturarik ere izaten. Enpresa handietan zorrotzago betetzen da legedia txikietan baino. Haien enpleguari etekin ekonomiko handiagoa ateratzeko beharrak arrisku handiko lan baldintzak onartzera bultzatzen ditu. Irregularitasunik eta seguratasun faltarik handienak eraikuntza sektoreari egozten zaizkio.

Erakundeen iritziz, immigranteek lagun eta senideen bidez ezagutzen dituzte osasun zerbitzu orokorretara eta gizarte zerbitzuetara iristeko sareak; dena dela, zerbitzu horietara urgentziazko zerbitzuen bidez iristen dira gehienbat, familiako medikuaren bidez iritsi beharrean. Harremanetarako arazoak sortzen dituzten faktoreak hauexek izaten dira: hizkuntza, jatorriko kulturen aurreiritzi batzuk eta erlijioa, batez ere emakume-entzako zerbitzu espezifikoenetan. Gai horretan Administrazioak darabilen irizpidea legalista da: Gizarte Segurantzarako kotizatzen duten guztiek eskubide berdinak dituzte. Irregularren artean bada oraindik ere beldurra Osasun Txartel Indibiduala (TIS) eskuratzeko, horrek ekar liezazkiekeen kontrolaren eraginez.

14.-Nafarroako SOS Racismo erakundearen azterlan baten arabera -El oficio de la prostitución en Navarra: estigmas y modos de vida- (2003ko martxoa)-, prostituzioaren sektorea etengabe hazten ari da. Hala, Estatuaren eremuan 300.000 emakume baino gehiago ari dira sexuaren sektorean (hamar gizon nagusitatik lauk ordaindu dute inoiz harreman sexualen baten truke). Nafarroaren kasuan, 775 emakume inguruk dihardute lan horretan; horietatik, %90 baino gehiago atzerritarrak dira, bertonekiko eta lan egiteko baimenik gabekoak.

Immigranteak Nafarroako gizartera ekarri dituen arrazoen ardatza ekonomikoa da, eta, beraz, azterketa honetan ezin ahaztu daitezke haien lanaren (edo langabeziaren) testuinguruak eta berezitasunek osasun fisiko eta mentalarentzat dituzten ondorioak. Kolektiboa babes publikoko sistemetan sartu da arian-arian, batez ere osasun zerbitzua unibertsala delako. Osasun txartela unibertsalizatuta dago, baita immigrante irregular gehienen artean ere, nahiz eta batzuek, beldurragatik, txartela eskatzeari uko egiten dioten. Kontsultatutako azterlanetan ikus daitekeenez, sanitarioek diote immigranteek gehiegi erabiltzen dituztela urgentziazko zerbitzuak, baina horren arrazoa da ez dituztela ondo ezagutzen osasun zerbitzuen sarera iristeko bideak.

Immigranteen munduarekin lan egiten duten elkarteetako ordezkariak diotenez, Administrazioaren alde-tik badira "intentzio onak", baina egin diren ekintzak gutxi dira eta haien eraginkortasuna zalantzan jartze-koa. Elkarreak berak sostengurako eta informaziorako babesleku dira: bertan ezagutzen dira bai eskubide-ak eta bai harrerako gizartean dauden baliabideak. Beste alde batetik, eurentzat arrotza den gizarte bate-an beharrezkoa da laguntza afektiboa eta harreman-laguntza ere ematen dira, kontuan hartuta, gainera, askotan ez dutela familiaren sostengua izaten. Beraz, elkarteen errealitatean prebentzio sozial eta sanita-rioia ere badago. Sufrimenduzko egoerak gorabehera, jendeak bertan geratu nahi du, zeren jaioterrian ez baitago etorkizunik, ez haientzat eta ezta haien familientzat ere (are gutxiago seme-alabentzat); horixe da harrerako gizartean jarraitzera bultzatzen dituen indarra, bertan pairatzen dituzten arazoak gorabehera. Lanaren eremuko kultura sanitario eta prebentiboaz galdetuta, erakundeko ordezkariak bi balorapen egin zituzten: alde batetik, herri askotan ez dago horrelakorik; bestetik, lana helburu nagusia denez, ez dira kez-katzen beren osasun egoeragatik edo lanaren garapenean dauden arriskuengatik, muturreko egoeretan izan ezik. Laneko baja lanik ez egitearekin parekatzen dute, langilearentzat errentagarritasun gutxiago due-lako; horregatik, muturreko egoeretan baino ez dute eskatzen.

SOS Racismo erakundearen arabera, laneko segurtasunaren eta lan baldintzen eremuan salaketa gutxi daude. Lan egonkorrera iritsi ahala, berriz, gai horren inguruko kontzientzia hartzen dute immigranteek eta beren eskubideak eskatzen dituzte, baina beti langile autoktonoek baino indar txikiagoarekin. Gogoan izan behar dugu langile immigranteen kolektiboa gazte samarra dela, oro har, eta horregatik gutxi direla osa-sunarekin lotutako arazoak; gauzatzen ari diren lanen gogortasunak ondorioak izan ditzake etorkizunean, osasun sistema gehiago erabiltzera bultzatuz, kolektiboaren adina hazten den neurrian.

Gizarte zerbitzu publikoak gero eta gehiago erabiltzen dira, datu batzuek berresten dutenez: hamar immi-grantetatik bederatzik diote inoiz jo dutela GKE batengana, eta lauk oinarrizko gizarte zerbitzuetara. Oinarrizko errenta eskuratu dutenen kopurua ere bada garrantzitsua (errenta hori kobratzen duten hamar pertsonetatik hiru immigranteak dira, nahiz eta haien kobratze-epeak askoz ere laburragoak diren).

Immigranteek pairatzen duten patologiar buruz egindako azterlanek adierazten dutenez, medikuarenga-na jotzeko duten arazoak gainerako biztanleek dituzten arazoi berdinak izaten dira, norberaren kultura, hizkuntza, erlijio, sinesmen eta gisa berekoen arabera adierazita. Gainera, Vicenç Thomasek hauxe gaine-ratzen du: "lan normalizatu bat lortzeko zailtasunak, bizitzeko egoera irregularra, osasun sare publikora modu normalizatuan ez iristea, arrisku sozial handiko lekuetan elkarrekin bizitzea, eta hizkuntzari eta kul-tur desberdintasunei lotutako komunikazio arazoak dira immigranteen osasuna gehien baldintzatzen duten elementuak. (...) Gainera, immigranteen kolektiboa bereziki hauskorra da, zeren bazterketa sozialeko mekanismoen biktima baita. . Autore horrek gomendatzen du immigranteentzako esku-hartze sanitarioko politikak berraztertzea, besteak beste ekintza hauek gauzatuz:

- Saiatu behar da gaiari modu homogeneoan ez heltzea; immigranteen erlijioak, sinesmenek, geografiak, kulturak, generoak eta gisa berekoek beharrak eta tratamendu bereiztuak determinatzen ditu.
- Kolektibo horren osasuna hobeto gainbegiratu eta planifikatu behar da. Informazio eta heziketa sanita-

ria hobetu behar da haien eta sistemaren artean –eta alderantziz–.

- Biztanle immigranteen erregistro erreal eta eguneratuak behar dira.
- Osasun-bitartekariak prestatu behar dira komunitateen buruzagiekin, hezkuntzarako eta osasunaren sustapenerako ekintzetan.
- Immigranteentzako arreta lehenetsi behar da Osasun Zentroetan.
- Diziplina anitzeko prestakuntza programak garatu behar dira profesional sanitarioentzat, eta, horrekin batera, sanitarioen lana erraztera zuzendutako protokoloak eta jarraibideak prestatu behar dira.
- Ikerlan gehiago egin behar dira immigranteen osasun egoera errealaz ezagutzeko, eta baita haien behar eta lehentasun sanitarioak ezagutzeko ere.
- Bukatzeko, pertsona immigranteak gizarteratzearen aldeko politika orokorra onuragarria izango da biztanle guztientzat.

Immigranteen eskari sanitarioari buruz Taller de Sociología sI enpresak egin dituen azterlanek hauxe azpimarratzen dute: beharrezkoa da bitartekari sozialak prestatzea, eta baita itzultzaileak ere, pazienteen eta medikuen arteko harremanak errazteko; horrekin batera, esku-hartzerako protokoloak egin behar dira, gaixotasun tropikaletan espezializatutako medikuak, eta immigranteengana beren-beregi zuzendutako kanpainak egitea, sare sanitarioaren erabilera ezagutzera emateko. Egiaztatu da, orobat, lanaren mundura heltzen ez diren immigranteek –sarri askotan haien egoeraren irregulartasunak eraginda– antsietatearekin eta estresarekin lotutako arazoak izaten dituztela. Gainera, horrez gain bada arrisku bat, alegia, langabeziaren aldi hori luzatzen bada beste gaixotasun batzuk ere paira ditzaketela, bizi-kalitatea galtzearen eta ohitura osasungaitzak hartzearen ondorioz.

Immigratzeak berak arrisku handiagoa dakar gaixotasunak hartzeko, bai fisikoak eta bai mentalak. Halaxe adierazten du Francisco Collazos-ek Psikiatriaren IX. Batzar Nazionalako txosten batean (2005): “garbi dago immigrazioa estres iturria dela, erreferente kultural berrietara egokitzeko beharrak edo sumatutako diskriminazioak sortua. Estresaren iturriak hiru izango lirateke: hizkuntza zailtasunak, gizarte sare egokirik ez egotea, eta lanpostu duinik ez izatea”. Harrerako herrira iristean, hasieran euforia nagusitzen da; horren ostean, “haran” moduko fase bat dago, zeinean errealitatea aurrez aurre jartzen baitzaio immigranteari, halako moldez non asaldura psikiatrikoak sor ditzakeen. Biztanleria gazteena ere arrisku-talde bat da hasieran, anomia egoerak pairatu baititzake, bi erreferente kultural uztartzeko beharrak eraginda. Osasun Mentala immigrazioak konpondu gabe duen gaia izango litzateke, eta beharrezkoa izango litzateke eskari berrietara egokitutako taxuzko arreta planifikatzea, besteak beste honako faktore hauek kontuan hartuz: familiarik urrun bizitzera behartuta egotea, dolua distantziatik bizitzea eta bete gabeko ametsak sortutako frustrazioa.

4 - Azterketa sektoriala: eraikuntza, ostalaritza, garbiketa, etxeko lanak eta garraioa.

Azken kapitulu honetan, ikerlan honek aztertu dituen hiru ekoizpen-sektoreetan sortzen diren diskurtsoak aztertuko ditugu banan-banan. Hizkeraren interpretazio-zentzua ulertzeko xedez, hitzeko dinamiketan parte hartu zuten pertsonen esandakoa jasoko dugu hitzez hitz (verbatims). Azterketaren aurkezpen honek kontuan hartu du taldeen hizkeran zeharkako adostasun-ildoak agertu izan direla, langileen diskurtsoaren argudio-ildoetan. Garbi geratu da immigranteen bizimodua gaur egun esplikatzen duen ardatza lanaren ideiatik pasatzen dela; hala, lana kontuan hartu ezean ez du zentzurik ez inongo estrategiarik eta ezta haien presentziak berak ere. Horregatik, diskurtsoa berez lotzen da ikerketan parte hartu duten mintzakide sozialen azterketarekin, hots, erakundeei buruzko atalean lehen aurkeztutako azterketarekin.

Eztabaida-saioetan aritu diren parte-hartzaileek gaineratzen dutenez, legezketasuna lortzearen ostean beharrezkoa da gizarte mailan jarrera hartzea, alegia, gizartearen aurrean agertzea eta hiritar gisa dagozkien eskubideen alde borrokatzea. Horregatik, taldeen diskurtsoaren baitan leku handia uzten zaio kulturen arteko elkar "begirunea" errebindikatzeari: gizarte integrazioak ez du norberaren nortasuna baztertzera eraman behar, baizik eta mestizaian oinarritu, desberdintasuna guztiontzat positiboa den zerbaitzat hartuta. Aitortu behar da aldaketa sozial eutsiezin bat datorrela etorkizunerako, eta immigranteek rol eta protagonismo aktiboa izan behar dutela bertan nahitaez.

Guztiak sentitzen dute familiarren eta lotura afektibo hurbilen absentsiak sortzen duen angustia estresagarria, zeren elementu horiek funtsezko oinarriak baitira bertan daudenen eta –batez ere– jatorriko gizartean geratu direnen bizi baldintzak hobetzearen aldeko borroka ekiteko. Premia ekonomikoak sortutako egoera horren eraginez, bestelako baldintzetan jasango ez lituzketen lan egoerak eta osasun galerak onartu behar izaten dituzte sarritan immigranteek. Horregatik, lanik gabe geratzeko beldurra da immigranteen artean nolabait nabaritzen den mendekotasun egoera esplikatzen duten aldagaietako bat, batez ere irregulartasunaren alorrean mugitzen direnen kasuan. Batzuk kezkatuta agertzen dira beren seme-alabak –horietako asko hemen jaioak– lan merkatura iristen direnean gerta daitekeenagatik (alde horretatik, garrantzia ematen zaie iraganean immigranteak hartu zituzten beste herri europar batzuetan gertatzen ari diren arazoei, hala nola Frantzian edo Alemanian gertatzen ari direnei).

4.1.- Eraikuntza

4.1.1.- Laneko testuingurua

Eztabaida-taldean parte hartu dutenak bat datoz eraikuntzako lana gogorra dela esaterakoan; dena dela, makineria espezializatuaren erabilerak nolabait aritzen du lan hori harrerako gizartean egitea, zeren haien jaioterrietan ez baitute horrelako tresnarik. Lanaldia hamar ordutik gorakoa da enpresa gehienetan, eta, beraz, sektore horretan ondo aritzeko ezinbestekoa da gazte izatea. Horregatik, eraikuntzako lana haien bizitzako aldi mugatu baterako soilik planteatzen dute: batzuek beren jaioterrira itzuli nahi dute gero, bertan lan proiektuak gauzatzeko; beste batzuek, berriz, beren lanbide-titulazioaren homologazioa lortu nahi dute eta beren prestakuntzari eta kualifikazioari dagozkien lan-eremuetara iritsi.

Eraikuntza sektorearen lana gogorra da, lanaldi luzeengatik, pisu handiak mugitu behar izateagatik, aire zabalean aritu behar izateagatik eta baldintza klimatologiko latzengatik; faktore horien eraginez eta Nafarroako gizartearen bizi-kalitatearen hazkundearen ondorioz, gero eta gutxiago dira sektore horretan

lan egin nahi duten langile autoktonoak. Gainera, eraikuntzako langileek diote lan horrek ez duela balorpen sozialik, nahiz eta ekonomikoki bai baloratzen den, eta, hortaz, bertoko gazteek beste eremu batzuetara orientatzen dute beren lan-jarduna. Bizi-kalitatea eta familia-ekonomiaren egoera ona –oro har- direla medio, gazte horiek berandu iristen dira lan merkatura, kasu gehienetan unibertsitatetik pasatu ondoren. Eraikuntzaren alorreko lanak hartzen dituztenak immigrante berriak edo oraingoan ondorengoak dira; azken horiek ahalik eta arinen hasi nahi dute lanean, bai haien jatorrizko lan kulturaren eraginez eta bai haien gurasoen ekonomiari lagundu nahi diotelako.

Eraikuntzaren sektorean dagoen kulturarik eza –lankideenganako errespetu falta- da gehien kritikatzaren diren gaietako bat, batez ere Afrikako eta Latinoamerikako langileen aldetik. Norberaren erlijioaren kontrako irainak eta mespretxuzko hitzak, gainerako sinesmenekiko tolerantziarik eza eta ahozko jarrera matxistak eta arrazistak –batzuetan- ez dira ulertzen beste kultura batzuen ikuspuntutik. Immigranteek argi eta garbi adierazten dutenez, beharrezkoa da langileen prestakuntzan esku hartzea begirunearen kulturaren ikuspuntutik; haien ustez, beharrezkoa da esparru humanizatuago bat lortzea eta oraingo egoera errortik aldatzea, zeren antzematen den kulturarik ezak zikindu egiten baititu bai sektorea bera eta bai bertako langileen izena.

Hizkuntza ez ezagutzea –batzuentzat- eta tresneriaren izenetan dauden desberdintasunak –gaztelaniaduentzat- ere arazo bihurtzen dira hasieran lanaren eremuan, hala langileen arteko komunikazioari dagokionez nola langileen eta arduradunen artekoari dagokionez. Hizkuntza eta sektorearen legezko esparrua ez ezagutzeak langileen esplotazioa bultzatzen du, batez ere Afrikako langileena, horiek sektoreko profesionalak izan arren. Jatorri afrikarreko langileek bereziki kritikatzaren dute eraikuntzako enpresa batzuek haiekin duten jokaera baztertzalea eta –batzuetan- arrazista, batez ere “aldi baterako laneko enpresen” (ABLEak) kasuan. Eraikuntza sektorea aztertzerazuzendutako talde-bileran parte hartu zutenen iritziz, Nafarroako gizartean bada immigranteen kontrako arrazismoa, nahiz eta batzuetan modu ilun samarrean azaleratzen den

- Nire herrian “palustre” deitzen diogun tresnari “paleta” esaten diote hemen; “pala” esateko “maceta” esaten dute; horrela gertatzen da gauza guztiekin, eta horregatik asko kostatzen zitzaidan tresnen izenetara ohitzea; dena dela, neu saiatua naiz eraikuntza-lanetan, eta bizkor hartzen nuen gauzen haria.
- Hori ez da arazoa. Geuk, aldiz, ez dakigu gaztelaniaz, eta hona gatozenez gaztelaniaz ikasi behar dugu lana lortzeko, paperak bilatu behar ditugu, gauza asko bilatu behar ditugu; hori, aldiz, erraza da zuentzat, zeuen hizkuntza aski antzekoa baita; ez da hori, ordea, gure kasua. Afrikarrok arazo larriak ditugu dugu hemen lana aurkitzeko, paperak lortzeko...
- Tira, ez dut esango orokorra denik, baina Espainian oso hedatuta dago arrazismoa. Izan ere, neu eraikuntzako langilea naiz eta lan askotan ibili naiz, eta garbi ikusi dut immigranteak hemen nola tratatzen dituzten.

Lan baldintzei buruz beren-beregi hitz egitean, diskurtsoa kritikoago bihurtzen da. Enpresarentzat zuzenean lan egin beharrean langileek autonomo “destajista” batentzat lan egiten behar dutenean, orduan esplotazioa gordinagoa da eta ohikoagoa da kobratu gabe geratzea. Sistema osoak aprobetxatzen du immigranteak dirua irabazteko duen premia, edozein baldintzetan eta edozein soldataz, bere jatorrizko familia mantentzeko. Alderdi hori ari are larriagoa da langilea egoera irregularrean baldin badago, legearen aldetik; diotenez, batzuetan hiru euro baino ez diete ordaintzen lanorduagatik. Ilegaltasuna eta esplotazioa eramaten dituzte, egoera legeztatzean –noizbait- lan baldintzak eta soldatak duinago bihurtuko direla esperantzarekin. Premia ekonomikoak estuasun guztiak jasatera behartzen ditu immigranteak; Saharaz beharako langile afrikarrek (beltzak, haiek dioten moduan) immigranteen talde zapalduena eta txartoen ikusia osatzen dute, eta, beraz, esplotatuena.

- Badira hainbat klase: Hegoamerikako jendearena, Europako Ekialdekoena, eta afrikarren klasea; afrikarren artean zuriak eta beltzak daude. Hala, lau klase ikusten ditut nik.

Hemen, geuk, afrikar beltzok, arazo handiak ditugu. Aurrena, jendeak telebistaz ikusten gaituenean, Espainiara oinez gatzozela, bada, animaliak eta ikasi gabeak garela pentsatzen du. Guretzat oso zaila da hemen lana topatzea.

- Neuk banuen kontratu finkoa, baina enpresa utzi behar izan nuen; paperik gabeko mutil boliviar bat hartu zuten eta lanordu bakoitzeko hiru euro ordaintzen zizkieten. Neuk zera esan nion: "hau jasan-gaitza da, ezin diot eutsi", sei hilabete egon nintzen, eta gero esan nion "goazen hemendik", eta gazteak "ez, ez, ez", berak ez zuen alde egin nahi. Hiru euro orduan.

Lan gogorak eta esplotazioak dakarten egoera hori (haiek berek makina kontzeptua erabiltzen dute) –peoi bat aldi berean ofizial batzuentzat lan egitea- hasi da eragina izaten langileen osasunean. Immigranteen kolektiboa gaztea denez, gehiegizko esfortzuetatik ondorioztatzen diren araoak ez dira orainaldian azalertzean, baina eragina izango dute etorkizuneko sistema sanitarioan.

Neu peoi espezializatua naiz, eta aldi berean sei ofizialentzat egiten dut lan, makina baten moduan lan egin ere; bi urte daramatzat horrela, makina baten antzera, eta orain mina sentitzen dut, gorputzaren erreakzioa; oso nekatuta sentitzen naiz. Zergatik lan egin dudan horrela? Bada, paperik ez nuen egoera jasan behar nuen, zeren amaieran jefek kontratua egiten baitit.

Taldeak guztiek uste dute erregularitasuna (edo legezketasuna) lortzearekin batera enpleguaren baldintzak hobetzen direla, eta baita bizi-baldintzak ere, zeren modu normalizatuan eskuratu ahal baitira laguntza publikoak: familia, laguntzak, osasuna, sustapen publikoko etxebizitzak, haurtzaindegia, eta abar.

Harrerako gizarteak immigranteentzat onartzen duen mugikortasun sozial eta laboralari dagokionez, kolektiboaren iritzia negatiboa da. Lanbidearen alorrean aurrera egiteko ahaleginak egin arren, prestakuntza osagarria izan edo eskuratu arren, immigranteak langile autoktonoek baztertzen duten esparruan aritu behar izango dira beti; bertoko langileekiko lehia ez dago ondo ikusita. Espainiarrei atzerrian ematen zaien tratamendua –batez ere Hegoamerikan-, aldiz, paregabea da, eta oso urrun dago haiek atzeritarrei ematen dieten tratamendutik.

Kulturaren eta prestakuntzaren alorrean immigranteek duten egoerari aurreiritzi handiz begiratzen zaio; etorritako pertsona gehienek badituzte titulazio akademiko eta profesionalak, baina horiek ez dira ontzat ematen harrerako gizartean, eta are gutxiago eraikuntzaren esparruan. Behin eta berriz esaten dute haien jaioterrietako ekonomia kaskarra dela immigraziora bultzatu dituen; haien herrietatik irteten diren pertsonak eskolatuak dira eta badituzte ekimenak beren egoera pertsonal eta familiar hobetzen saiatzeko; gehien-gehienak goiko edo erdiko mailetan kokatuko lirarteke haien jaioterrietan. Gehienek aitortzen dute ez zutela inoiz ere pentsatu eraikuntza sektorean lan egitea.

- Neu eraikuntzan ez naiz inoiz aritu, nire herrian, zeren nire alorra informatika baita, konputagailuak eta hori guztia, eta hona eraikuntzara etortzea...

- Geure herrietan zerbait izan gara.

- Nire herriko profesional batzuk ezagutzen ditut, medikuak direnak eta hemen etxebizitzak garbitzen dihardutenak.

- Lanordu bakoitzeko 3 euro kobratzen zituen gazte hori finantza-langileen zerrendan dago Bolivian, eta hemen fitsik ere ez, paperik gabeko peoia, besterik ez.

- Gure herrira doan espainiarra, aldiz, erregea balitz moduan iristen da hara.

- Nire herrian zientzia fisikoa irakasten nuen; zientzia fisikoan lizentziatua naiz. Eraikuntzako peoi moduan lan egiten dudala erakusten duten argazkiak egin eta nire herrira bidaltzen ditudanean, nire

ikasleek ez didate sinesten, Europan zoratu egin naizela pentsatzen dute. Nire herrian zientzia fisikoko irakaslea, eta hemen obra-hondakinak garbitu behar ditut, obra-hondakinak kendu behar ditut, aste osoa eman behar dut pikatzen, aste osoan gelditu gabe, kaskorik gabe, babesik gabe, ia 50 kiloko makina batez aritu, horrela, aste osoa.

- Neu hizkuntza irakaslea naiz.. 14 hizkuntzaz hitz egiten dakit, baina (...)

Egoera legala dutenen soldata onargarria da, baina ez da aski kontsumoaren gizartean bizirik irauteko, aurrezteko eta sorterriko senideei dirua bidaltzeko. Enpresa handiagoetan, soldata eta lan baldintzak hobekiak dira enpresa txikietan baino, edota autonomoekin lan egiten dutenenak. Taldekide guztiek diotenez, egoera eta lan baldintza okerrenak immigranteentzat utzi ohi dira, eta baita arrisku handiena ere. Hori obra guztietan gertatzen da.

Diskurtsoan antzematen denez, immigranteek zalantza handiak dituzte eraikuntzako enpresarien zintzotasunaren inguruan; langileekin dituzten kontratu-betebeharren zati bat ezkututzen saiatzen dira beti. Enpresariak beren enplegatuekin dituzten betebehar ekonomiko eta laboral guztiak soldatarekin kitatzen dituzte.

Halaber, immigranteek salatzen dutenez, aparteko orduak eta ekoizpen-jardueraren plusak desberdinak dira immigranteentzat eta langile autoktonoentzat, beti ere atzerriko langilearen kaltetan. Premiako egoerak eta kontratua luzatuko ez ote dieten beldurrak jarrera otzanak sortzen dituzte langile batzuegan, baina horrek ez du esan nahi langileak bere lan eskubideak ezagutzen ez dituenik.

- Langileen eskubideetatik, bada, soldata baino ez; ...zeragatik lan egiten dugu..., zer egingo ote duzu bederatzehun eurorekin, bederatzehun eta hogeirekin, adibidez; alokairua ordaintzera zoaz, gastua, eta gure herrian ditugun ardurak. Neuk, adibidez, hilero bidali behar dut dirua, sosik gabe geratu arren, baina nire gurasoak dira lehenengoak, nire gurasoak eta neba-arrebak; ehun eta berrogeita hamar, gutxienez, gehi berrehun eta hirurogei alokairurako, gehi gastua, gehi, gehi,... ez zait heltzen kobratzen dudanarekin; beraz, azken astean negarrez geratzen naiz.

- Lagun batek enpresa oso handi batean lan egiten du. 10 lanordu egiten dituzte, astelehenetik ostiralera, eta, nahi izanez gero, larunbatetan ere lan egin dezakete, 8etatik zetara. Neuk badakit orain oso ondo irabazten duela; hilean 1400 euro kobratzen ditu, gutxienez.

- Norbait iristen denean kontratu bat sinatzera, gartzelaniaz hitz egiten ez badakizu, edo irakurtzen ez badakizu, une horretan zureak egin du, zeren zutaz aprobetxatuko dira ahal bezainbeste, zeuk ez dakizun edozein gauza egingo dizute, besterik gabe.

- Neu azkenean konturatzen naiz ez dagola inongo enpresaririk eskuak garbi dituenik. Beti dago arauzkoa ez den zerbait, dela orduengatik, dela diruagatik, dela horrelako beste edozergatik. Beti manipulatzen zaituzte, burmuinik izango ez bagenu moduan.

Lehen adierazi dugun moduan, profesional autonomo batentzat lan egitea, obretan azpikontratatuta, enpresetan baino txarragoa da. Baldintza horietan lan egiten dutenak kexu azaldu dira lan eta segurtasun baldintzengatik, zeren arin eta somara lan egitea lehenesten baita, segurtasun baldintzak eta neurriak ahaztuta. Arrisku erantsiaz gain, soldata ez da batere egokia: zazpi eta bederlatzi ordu bitarte, lanordu bakoitzeko, aparteko soldatarik eta oporrik gabe.

- Neuk, adibidez, autonomo batekin lan egiten dut eta bederlatzi euro ematen dit lanordu bakoitzeko, ezta ez du ez oporrik ez beste ezer ere.

- Niretzat, komisioekin lan egitea oso txarra da. Niri zazpi euro eta hogeitazentimo ordaintzen dit lanordua, inolako eskubiderik gabe, eta gainera PFEZa kentzen dit

- Aparteko ordurik eta ezer gabe?

- Ezer gabe. Ez dut beste ezer ere kobratzeko eskubiderik.

Erregularizatutako langileak diren aldetik, integratuta daude kotizazio sisteman eta PFEZaren konturako ordainketa sisteman. Immigranteak kexu azaltzen dira, %13 zerga oso handia baita haien eroste mailarentzat; gainera, jaioterriko familiei bidaltzen dizkieten zenbatekoak ez dira kenkarietarako kontatzen; atxiki-pen txikiagoak dituztenek, jakina, zuzenean ordaindu behar dute urteko aitortpena egitean.

“Immigrazioaren eragina transformazio bidean ari den gizarte batean” azterlanean Miguel Laparrak dioenez, immigranteak zerga-bilketaren subjektu pasiboak dira, modu proportzionalen sortzen dituzten diru-sarreretan eta egiten dituzten gastuetan. Bere hipotesiaren arabera, BEZaren bidez hamar eta hamabi milioi euro bitarteko sarrerak sortzen dituzte, gehi PFEZa edo kontsumoari lotutako zeharkako zergak. 2003 urtean, Nafarroako Foru Komunitateko BPGari egindako ekarpena %2,5 izan bide zen. Gizarte Segurantzak ere diru-sarrera mardulak jaso zituen 2004an, 19.053 atzerritar afiliatzeagatik.

- Lehendabiziko urtean 413 eman dizkirate, eta esan zuen: zer arraio, ondo dago, horrela kobratuko dut urtero, baina hurrengo urtean 138 ordaindu behar izan nituen, eta aurten 183, eta gainera badut etxebizitza-kontua. Eta ez dakigunez zer den nominan datorrena, haiek azaltzen diguten arren ...
- Baina gutxienez ondo nago. Neuk 10 lanordu egiten ditut egunean, 10 ordu, eta mila euro kobratzen ditut eta %2 kentzen didate

Lan baldintzen haria etxebizitza eskuratzeko eskubideekin lotzen da diskurtsoan; izan ere, etxebizitza izatea beharrezkoa da lan egin ahal izateko. Etxebizitza eskuratzeko jardunean ere agerian geratzen da diskriminazioa. Iruñeko gizarteak immigranteen aurrean dituen aurreiritziengatik, etxebizitzak ikasleei alokatzen dizkiete aurrena, immigranteei baino lehen. Nahiz eta, ikasleek ez bezala, immigranteek kontu handiz zaintzen duten etxebizitza, hori lortzea zein zaila den baloratzen dutelako eta bertan jarraitu nahi dutelako. Immigranteek kontatzen dute nola telefonoz deitzean, alokairua bilatzen duenaren jaioterria zein den galdetzen dute jabeek batzuetan, eta atzerritarrak direla jakitean jadanik alokatuta dagoela erantzuten diete. Orokorrean, esplotazio egoerak gertatzen dira etxeak dituztenen eta etxeak alokatzen dituztenen artean, jabea ere immigrantea izan arren. Halaber, abusu ekonomikoak ere detektatzen dira. Errentak oso garestiak dira, bai immigranteentzat eta bai Iruñean etxebizitza bat alokatzen duen edozein pertsonarentzat. Horren alternatiba da etxebizitzak konpartitzea, etxe alokatuetan; horrelakoetan, hirurehun eurorainoko errentak ordaintzen dira gela batengatik. Etxebizitzak soldataren zati handi bat jaten du, baina horren truke ez da iristen atsedenaldirako esparru intimoa izatera.

Jabeek etxebizitzak eta bertan elkarrekin bizi direnak kontrolatzen dute, eta kontrol horiek jabe gisa dagoen eskubidetik haratago doa, etxebizitza alokatu duten pertsonen intimitate eskubidea urratuz.

- Ikasleei alokatzen diela ikusi dut, eta alde egiten dutenean guztiz apurtuta uzten dute etxea: geu, aldiz, erne-erne egoten gara, zirrikituren bat agertzen ote den kontrolatuz, jabeak zer eskatuko ote digun beldurrez, eta horregatik ondo antolatuta izaten dugu. Pintatzea edo beste ezer egitea tokatzen bazaigu, geure poltsikotik ordaintzen dugu; egin egiten dugu, etxearen jabea pozik egon dadin, baina ezta horrela ere ez digute alokatzen.
- Badira asko hanka sartu dutenak, immigranteak, esan nahi dut; nik zera diot, hanka sartu duten pertsona horiek kontuan hartzekoak dira, baina ez dezagun denok besteen errua ordaindu.
- Han bazen familia espainiar bat, etxebizitza batean bizitzen. Familia horrek bi urte eman zuen bertan, ordaindu gabe, errentarik ordaindu gabe. Neu sartu naizenean, baina, etxebizitzaren prezioa igo du, eta neuk hilero ordaindu behar dut pisua. Emakumea nire etxera sartzen da egunero, ikuskatze aldera. Neuk hilero ordaintzen dut errenta, huts egin gabe.

Erljioaren alderdi espezifikoki dagokionez, lan-esparruetan ez da aukerarik eskaintzen erlijio mahomatarra praktikatzeko, Frantzia, Belgika eta EBko beste herri batzuetan egiten den bezala, eta ezi-

nezkoa izango litzateke lanaldiak aro konplexuetara egokitzea, hala nola Ramadanera, horrek berekin dakarren baraualdiagatik. Batzuek uste dute hori denbora kontua dela eta mentalitate aldaketari lotuta dagoela, hau da, erlijio katolikoaz gain Nafarroako gizartean beste erlijio batzuk errotzen diren heinean aldatuko dela.

- Ramadanaren iristen denean, gainerako guztiek bezala lan egin behar dugu; galdu egin behar dugu, baina Ramadanaren egunean, hilabete osoan, ez dugu jan behar egun osoan, eta, beraz, jateko ordua heltzen denean zerbait jan behar dugu, baina hemen, Espainian, ezin dugu hori egin. Frantzia edo Belgikan, aldiz, bai egin daiteke, han errespetu handia dago jendearekin. Haiek jateko ordua ematen zuten, edo bestela lan ordutegia aldatzen zuten.

Langabeziari aurre egiteko, enplegua erakunde sozialen eta GKEen bidez bilatzen da, baina aitortzen da bide horretatik lor daitezkeen lanpostuak soldata txikikoak izaten direla; ABLEetan, berriz, enplegua onuragarriagoa da (nolabaiteko esplotazioa egon arren). Horregatik, ahal duten guztietan eta gutxieneko esperientzia izanik, harreman pertsonaletara eta laguntasun-harremanetara jotzen dute immigraanteek.

4.1.2.- Laneko segurtasuna eta osasuna

Laneko segurtasunaren eta osasunaren alorrean dauden esperientzia pertsonalak kontrajarriak dira; erakuntzaren alorrean, laneko segurtasunaren gaineko kontrola eta horren errotze-maila enpresaren tamainari lotuta daude. Lan baldintzak gehiago zaintzen dira enpresa handietan, enpresan hiltzeak irudi sozial txarra duelako eta kalte egiten dielako geroko ekintza komertzialei; ez, ordea, enpresarien artean kultura prebentiboa hedatuta dagoelako. Enpresa askotan ez dago prebentzio-materialik, beharrezkoa izan arren, eta, gainera, enpresa batzuek material hori jaso dutela sinatzera behartzen dituzte langileak. Zenbait kasutan, langileek berek erosi behar izaten dituzte beren babes eta segurtasun neurriak. Administrazioaren aldetik ere ez da inolako kontrol eraginkorrik ikusten.

- Obrako segurtasunaz ari garela, langileen eskubideaz, kaskoak, txalekoak eta bestelako segurtasun tresnak jaso dituzula dioen paper bat sinatu arren... segurtasunaren alorrean ez dago fitsik ere. Sinatzen duzunean, segurtasun-materiala gero emango dizutela esaten dizute, baina azkenean ez dizute ezer ere ematen.

- Neu nagoen enpresan asko zaintzen dute segurtasuna.. Hilero etortzen da segurtasun burua, jendearekin biltzen da, elkarren artean hitz egiten dugu eta segurtasunaren eremuko azken aurrerapenen berri ematen digu. Eskularruak ematen dizkigute, kaskoa, txalekoa...

- Niri, nire enpresan nik neuk erosten dut laneko arropa, ez didate eta ezer ere ematen. Iristen zarenean kaskoa eta txalekoa ematen dizkizute, eta horixe da dena. Neuk nire laneko botak erosten ditut, eta baita laneko eskularruak ere; bestela ez dut ezer.

Somara lan egiten denean, segurtasuna hirugarren mailako kontua da, zeren produktibitatea eta arintasuna lehenesten baitira, kosta lain kosta; langile autonomoak garenez, segurtasunaren eta azkeneko erantzukizunaren gaineko kontrola neurri handiagoan lausotzen da. Azpikontrata egiten duen enpresak ez du ardurarik hartzen, eta langile autonomoa produktibitatean eta lansarrietan soilik kontzentratzen da.

- Eraikuntza sektorean, somara lan egiten duten enpresak ez dira hainbeste kezkatzen segurtasunagatik, aurrera egin nahi dutelako, eta horiek enpresan lan egiten ez duten pertsonak izaten dira, beren kabuz lan egiten dutelako, eta hori batzuetan... Zeuk segurtasunez eta guztiz lan egiten duzu, eta ez duzu batere aurrera egiten; hori leku askotan gertatzen da, somara lan egin, aurrera egin, zeuk aurrera egiten duzun neurrian irabazten duzu, eta ia inor ez da segurtasunagatik kezkatzen.

Eraikuntzako langileen taldeko partaideek diotenez, horren arduraren Administrazioek ez dituzte istripuak modu errealean eta eraginkorrean kontrolatzen; aitzitik, garbi ikusten dute salatzen eta erregistratzen diren istripuak ez direla inola ere geratzen diren guztiak. Anputazio txikiak eragiten dituzten zenbait istripu ere salatu gabe uzten dira, kaleratua izateko edo soldata galdetzeko beldurragatik, eta langileak lanean jarraitzen du, gaitasun gutxiagorekin, pairatutako anputazioagatik edo lesio sendaezinagatik, eta, gainera, legeak horrelako kasuetarako ezarritako dituen kalte-ordainak kobratu gabe.

- Jende asko etortzen zait eta zera esaten dit: salatu egin behar duzu, ez dakit zer, dirua emango dizute, baina azkenean ezer ez, eta hori zergatik? Bada, salatzera baldin banoa zer emango didate? Bi mila euro? Hiru mila? Baina lanera itzultzen naizenean kalera bidaliko naute, eta zer jango dut orduan? Ezer ere ez. Atzamarrarekin geratu naiz, begira nolako den, ezin toles dezaket orain, horrela bizitza osorako, eta azkenean ezer ez.

Miaketa medikoak ere ez dira enpresa guztietan egiten. Prebentzio-materialaren banaketarekin gertatzen den bezala, edo prebentzio-materialari eta prebentzio-jarduerei buruzko informazio ematearekin gertatzen den bezala, miaketa medikoak egitea enpresen neurriaren arabera da. Edonola ere, taldekideak bat datoz kontu batean, hots, produktibitatea segurtasunaren gainetik jartzen dela beti azkenean.

Prestakuntza ikastaroetara joateak bi oztopo nagusi ditu, bai eraikuntzaren eta segurtasunaren eremuko gaiak ikasteari dagokionez eta bai bestelako eremu kultural eta/edo profesionaletako gaiak ikasteari dagokionez: alde batetik, eskaintza oso txikia dela eta enpresek erraztasun gutxi ematen dituztela; bestetik, eraikuntzako lanak -bere ezaugarriengatik- esfortzu fisiko handia eta jarraitua eskatzen duela; horrez gain, ordutegiak berak ere oztopatu egiten du lanaldiaren ostean prestakuntza jasotzea. Enpresak interesa duenean, berriz, bidea ematen du segurtasunari edo lanbide prestakuntzari buruzko ikastaroetara joateko. Kualifikazio profesionalaren alorrean, jaioterriko ikasketen eta titulazioen arazoa agertzen da beti. Zirkunstantzia horrek ere oztopatu egiten du enpresen barnean lanpostuz igotzeko bidea, langileak prestakuntza izan arren kualifikazio handiagoko lanpostuetan aritzeko.

- Jakina, eta hori ere ikasteko; neuk, adibidez, lan egiten nuen eta autoeskolara joaten nintzen, eta zer ikasiko nuen? Nekatuta nengoen eta lo geratzen nintzen. Lanean egonda bi aldiz aurkeztu naiz azterketara, eta bietan huts egin dut.

Behin batean, obra bukatu zen eta astebete egon ginen lan egiten gabe; orduan, hiru egun eman nituen gaia ondo ikasten eta azterketa teorikoa gainditu nuen. Denbora falta da. Energiak... lanean ari zara, eta burmuina ez duzu irekita.

Beste alde batetik, kultura sindikalari dagokionez, kultura hori ez da ia existitzen ikerkuntza kualitatibo honetan parte hartu duten langileengan. Gehienek harremanak izan dituzte bi sindikatu nagusiekin, erregularizazioari edo lan aholkularitzari lotutako kontuetarako.

Halaber, eraikuntzako langileen diskurtsoan antzematen denez, langileek ez diete eskari berezirik egiten sindikatuei -oro har-, zeregin prebentiboari eta informatiboari dagokionez; ordezkaririk ez dagoen eremuko sindikalei ere ez zaie ezer berezirik eskatzen obretako langileen segurtasunaren eta osasunaren alorrean. Eskari gutxi egotearen arrazoiak haxe izan liteke: immigranteek ikusten dute segurtasunaren egoera eta lan baldintzak hobek direla hemen haien jaioterrietan baino.

Ordezkaririk ez dagoen eremuko sindikalekin hitz egiteko ideia, enpresan bertan gutxienez, errebindikatioak eta kritikoak izatearekin lotzen dute, eta haiek ez dute nahi alderdi horiek jefeen aurrean azaldu, haien kontratuen jarraikotasunari kalte egin diezaiokeela uste dutelako. Soldata izango litzateke haien errebindikazioetan lehentasunik ez izatea, eta borroka horretan bai hartuko lukete konpromisoa.

- Zerbait esaten badiozu, inori kalterik egin nahi ez badiozu ere, txibatoa deituko dizute; lagundu egin nahi badiozu, hautsa garbitzen jarriko zaituzte –uste dut hala esaten dela-, eta, beraz, lan egin behar duzu, arduradunak agintzen dizuna egin behar duzu eta kitto. Lana gustatzen ez bazaizu, bada, sufritu egin behar duzu, eta hemen, geu gauden moduan, sufritu egin behar dugu, gauzak ez dira inoiz ere hobetuko, zerbait ona egingo dutela agindu arren, baina, noiz arte?

Talde-eztabaidaren amaieran, eraikuntzako lanaren etorkizun orokorra nolako izango ote den jarri zen mahai gainean. Taldekideek uste dute aldaketak astiro eta epe luzera etorriko direla, eta horretarako beharrezkoa izango dela maila ertaineko buruen kultura eta prestakuntza hobetzea; izan ere, obretan lan egiten duten zuzendariak eta unibertsitate-teknikariak badute euren kultura propioa, eraikuntzako gainerako langileen kulturatik bereiztuta (arkitektoak eta aparejadoreak aipatzen dituzte, batik bat).

- Aldaketak etor daitezke, noski, baina epe luzerako aldaketa da. Eraikuntzan agintzen duen jendeak ez du goi mailako ikasketarik, hau da, ikasketa aldetik gabezia handiak dituen jenda da, eta horrexegatik ostikoka tratatzen gaituzte. Aldaketak etor daitezke, horrela da, baina ez orain, epe luzera baizik.

- Neuk bost urte daramatzat hemen, eta baita nire haurrak ere, eta gero alde egin nahi baldin badugu, gurasook, haurrak 10, 15 urte izango ditu, ia espainiarra izango da, kultura aldetik. Horri ere oso txarto deritzot, haurra hartu eta gurasoek alde egin nahi dutenez, bada, haurrak ere alde egin behar du. Hori ere bada beste gai bat, aldaketa.

- Nire haurrak urtebete du, bertan jaio da eta nik diot, tristea bada ere, etorkizuna hemen gustatzen zaidala; penagarria da esatea, nire herria da eta asko maite dut eta ez dut hemen, Espainian, geratu nahi, nire herrira joatea dut gogoan, baina gazteentzat ez dago etorkizunik nire herrian. Ez dago etorkizunik indarkeriatatik; hemen, aldiz, bada etorkizuna.

Bukatzeko, guztiek diote etorkizuna desberdina izango dela beren ondorengoentzat, zeren haien seme-alabak hemengoak izango baitira; bestelako kultura bat izango dute, eta baita gizarte honetan bizitzeko behar diren tresna guztiak ere; horregatik, aukera izango dute nahi dituzten lanetan aritzeko, ez haiek bezala, zeren eskura zegoen lan bakarria hartu behar izan baitute, bertokoei nahi ez zutena, hain zuzen ere (etorkizun hobearen itxaropenean oinarritutako diskurtsoa).

4.2.- Ostalaritza, garbiketa eta etxeke lanak

4.2.1.- Testuinguru orokorra

Talde-eztabaiden bigarren lan-saioaren helburua zen langile immigranteen egoera alor hauetan ezagutzeari: ostalaritzan, garbiketan eta etxeetako eremu pribatuetan kokatzen diren zereginetan, hala nola garbiketa, haurrak eta adineko pertsonak zaintzea, janariak prestatzea, eta abar.

Ostalaritzako lana desberdina da etxeetan aritzen direnen lanaren aldean. Lehendabizikoan, zereginak gogorak izan arren, lan harremanak ondo definituta daude, eta soldatak txikiak dira baina harrerako gizar-teko pertsonak kobratzen dituztenen adinakoak. Etxeko lanetan askoz ere handiagoa da irregulartasuna: bai langileen egoera legalagatik –sarritan paperik gabe-, eta bai ez dagoelako lanorduek, soldata edo betekizunak arautzen dituen kontraturik. Horrek gehiegizko esplotazioa ahalbidetzen du, batez ere jabeen etxean bizi direnen kasuan (barruko langileak, egun osoa lantokian ematen dutenak)

Kanpoko langileek (eguneko langileak, jabearen etxean bizi ez direnak) ere lanaldi luzeak jasan behar izaten dituzte, gutxi gorabehera hamabi ordukoak. Oro har, bai barrukoek eta bai kanpokoak etxea mantentzeko behar diren zeregin guztiak egiten dituzte azkenean, haien lan teorikoa pertsonak edo haurrak zaintzea soilik izan arren. Horregatik, etxeke langileek lan horiek utzi nahi izaten dituzte eta ostalaritzara pasa-

tu, horrek bertoko egonaldia erregularizatzea eskatu arren. Jarraian aurkeztuko ditugun lekukotasunek berek adierazten dute, modu garbian, noraino diren gogorak emakume horien laneko zirkunstantziak.

- Goizetan, zazpitan altxatu izaten naiz, lanean zortzietan hasten naizelako. Oso lanaldi luzea dut, goizeko zortzietatik arratsaldeko zazpiak arte, tarteko atsedenaldirik gabe. Haurrekin lan egiten dut, eta pentsa dezakezue noraino nagoen lanpetuta. Hori astelehenetik ostiralera da. Larunbatean ordu batzuk ditut, eta hori desberdina da, gero igandea, eta astelehenean berriro gauza bera. Horixe da nire errutina, horixe da laneko astea.

- Ni Boliviakoa naiz, bederlatzi hilabete daramatzat hemen, eta barruko langile moduan ari nintzen lanean; hamalau ordu egiten nituen, goizeko zortzietatik gaueko hamaika eta erdiak arte, atsedenaldirik gabe, etxe handi batean, txalet batean. Bizimodu akigarria, astelehenetik larunbatera, arratsaldeko laurak arte, horixe zen errutina, garbitzea eta jabeei atenditzea.

Etxeko lanen sektorean handiagoa da langileen mendetasuna, sostengurik ez dutelako. Hala, enplegatzailearen eta enpleguaren arteko harremana zuzeneko da, eta eskubideak errebindikatzeak kaleratua izatera eraman dezake, zeren aukera handia baitago irregularrak kontratatzeke. Salaketak egitea zaila da, bai lekukorik ez dagoelako eta bai enplegatzailearen aurrez aurre jarri beharra dagoelako. Langabezia-prestaziorik ez egoteak ere are larriago bihurtzen du sektorean hedatuta dagoen mendekotasun izaera hori. Emakumeek berek diotenez: “zerbitzatzeraz zoz eta zutaz baliatzen dira”.

Harreman pertsonalak onak izaten dira, eskubideak exijitzen diren arte; orduan, harreman onak hautsi egiten dira automatikoki. Harrerako gizartean pentsatzen da immigranteek mentalitate otzana izan behar dutela, enplegua ematean mesede solidarioa egiten zaiela; ez dituzte langile moduan ikusten, horrek dakartzan eskubideekin.

- Espainiarrek ondo tratatzen gaituzte, bai, maite gaituzte, baina hori haien zerbitzariak garen bitartean, geuk hori egin ahal dugun bitartean. Amore ematen dugunean, orduan inor baino txarragoak gara haientzat, eta ez gaituzte lehengo maitasunaz tratatzen; edota zera esaten badiegu, “begira, soldata igotzen badidazu”, bada, neuk hori esan eta ezetz erantzun zidaten, nire etxean bezala nengoela esan zidaten, janaria ematen zidatela, banuela etxea, banuela..., nire etxean bezala nengoela, baina ez zen horrela, horratik.

Garbi dago etxebizitzaren gastua aurrezten dela, baina estresak jaten gaitu, adineko pertsonak jaten gaituzte, hau da, haientzat gara, haientzat egon behar dugu; hau da, haientzat ez dago ez egunik ez gaurik, hor egon behar dugu, eta ni hori azaltzen saiatzen nintzen, ito egiten nintzen. Neuk arratsalde librea nahi nuen igandean, eta etsita nengoen ezin nuelako hartu, eta azkenean alde egin nuen. Lana utziko nuela esan nien egunean, “txarrena nintzela” esan zidaten, argi asko eta ur asko gastatzen zuena nintzen ni, zeren jendea, zenbat eta diru gehiago izan orduan eta zikoitzagoa da, hortzak egunean behin soilik garbitu ahal nituen, bainatu larunbatetan baino ez; janaria, jabeak diabetikoak ziren, ez zuten ez gatzik ez azukrerik, baina, noski, neu Ekuadorretik etorri nintzen, izututa, legez kanpo, hau da, beldurrak nengoen ezer esateko, eta hala ere, uste dugu handik gatozen guztiok badakigula zer den ona ez zer den txarra.

Sektore horietan guztietan gatazkak sortzen dituen beste kontu bat aparteko orduen, oporren eta aparteko lanaldien ordainketa da. Halaber, etxeko lanen eremuan problematikoa da Gizarte Segurantzaren kuenten ordainketa, enplegatzailearen eta enpleguaren proportzioei dagokienez. Enplegatzaileak enpleguaren legalizazioa ahalbidetzen duenean, batzuetan txantaje gisa erabiltzen du hori lan baldintza kaskarrak ezartzeko.

Administrazioaren aldetik ez dute informaziorik jasotzen lan eskubideei edo –oro har- lan baldintzei buruz; aitzitik, administrazioen kezka nagusia immigranteen gaineko kontrol burokratikoek eustea da. Izan ere ez dute kultura sindikalik. Sindikatuei inplikazio gehiago eskatzen diete emakumeen errebindikazioan eta lan defentsan, batez ere etxeko lanen esparru ezkutuan. Sindikatu nagusiak direla eta, immigranteek gehien ezagutzen dutena da haien prestakuntza-eskaintza, baina esaten dute emakume immigranteentzat zaila dela ikastaroetan parte hartzea.

Taldeko saioan parte hartzen duten emakumeen artean oso ohikoa da enpleguaren alor hau osatzen duten hiru esparruetan lan egitea; soldatak txikiak direnez, edo lan esparru bakoitzean lanordu batzuk soilik egiten direnez, emakumeak hiriko leku batetik bestera mugitzen dira, hainbat jarduera uztartuz. Jarduera anitz horrek desgaste fisiko nabaria dakar, eta ondorio larriak ditu emakume immigranteen osasunean. Batzuentzat, nekea eta lan iraunkorra baliagarriak dira haien senide eta pertsona maiteen absentiak sortzen dien larritasuna arintzeko. Gainera, kasu gehienetan ez dute gizarte harremanetarako espaziorik, ezta aisialdirik ere asteburuetan. Hain zuzen ere, ostalaritzaren sektorean asteburuak dira lan gehieneko egunak, eta, horrez gain, bertoko langileek emakume immigranteek baino presio txikiagoa dute egun horietan libratzeko.

- Zazpi, zortzi orduz lan egiten nuen kafetegian, gero ordubetez gelara joaten nintzen, dutxa hartu, bokata bat eta coca cola bat arin hartu eta loreen berotegira joaten nintzen berehala, eta handik apurtuta irteten nintzen. Arratsaldeko txandak nituenean, goizez joaten nintzen hara, eta, noski, kafetegira irribarretsu joan behar nuen, beste leku batean ere lan egiten nuela konturatu ez zitezen... hau da, isil-isilik egiten nuen.

Dirua behar izateaz gain, denboragatik ere egiten nuen, zeren arratsaldean denbora askorik ez nuenez, buruari bueltak eta bueltak ematen nizkion, pentsatu egiten nuen, urduritzen nintzen, nire familia gogoratzen nuen, han utzitako semea, eta etsita geratzen nintzen, estresatuta, deprimituta eta goibelduta.

Harrerako gizartearen desberdintasunetara egokitzeko prozesu orokorrari dagokionez, egokitzapen hori zenbait alderditan azaleratzen da, hala nola, klimaren aldaketan –zailagoa klima beroetatik datozen emakumeentzat-, Nafarroako gizartearen harreman sozial eta pertsonalen izaera hotz eta itxian, lan erritmoe-tan, ordutegietan, puntualtasunean, eta gizarte integrazioa oztopatzen duten beste hainbat alderditan. Logikoa denez, harrerako gizartearen kulturara egokitzea ere beste faktore garrantzitsu bat da, eta baita hizkuntza ere, Latinoamerikatik ez datozen pertsonentzat.

Halaber, atal honetan aztergai ditugun sektoreetan diharduten emakumeen diskurtsoan zeharkako adierazpen arrazistak ere aipatzen dira; adibidez: autobusetan haien ondoan ez esertzea, pertsona moduan kontuan ez hartzea, edota begirada jakin batzuk.

- Hona gatoz, eta negua itxialdi baten modukoa da; lanetik etxera hotzak etorri eta ohean sartuta egon, manta bat gainean jarrita; horrek, nolabait, ohitzen ez garela esan nahi du .

- Niri gehien kostatu zitzaidana izan zen ulertzea ea jendeak zergatik ez gaituen bere etxera gonbidatzen, hau da, ez dira etxeetan biltzen, tabernetan baizik. Uste dut hori oso leku desegokia dela lagunen artean hitz egiteko.

Nik eskatzen nuena zen egoiliar-baimena luzatzea, eta zera esan zidaten: ezta kezkatu ere, inork ez zaitu bilatuko, gainera, zure itxuragatik... nazionala zarela ematen du. Oso iruzkin desatsegina iruditu zitzaidan. Beraz, bada arrazismoa.

- Nahikotxo.

- Asko, autobusetan ere. Askotan badira gure ondoan eseri nahi ez duten pertsonak.

- Edo begiratzen dizute...

Jatorriko familiarentzat baliabide ekonomikoak lortzeko edo seme-alabak elkartzeko beharrak beren burua esplotatzera bultzatzen ditu; autoesplotazio horrek nolabaiteko izaera terapeutikoa izan dezake, zeren lanari esker haien jaioterrietako familia-loturak ahaztu egin baititzakete, baina, beste alde batetik, osasun arazoak ekartzen dizkie. Lana galtzeko beldurra –Iruñean geratzeko arrazoia lana da- etengabe antzematen da emakumeen diskurtsoaren azpian. Etxeko lanetan barruko langile gisa aritu direnentzat, egoera horretara itzuli behar izateak angustia sortzen du.

- Neu kolonbiarra da, 20 urte ditut eta urtebete eta hilabete bat edo daramatzat hemen. Egunez lan egiten dut eta kamareroa naiz Huarteko taberna batean, eta arratsaldez txalet bat garbitzen dut. Dena dela, aldaketara erabat egokitzen ez naizela sentitzen dut. Urtebete baino ez dut egin hemen, bina ez naiz honetara ohitzen. Ez naute gaizki tratatu ez ezer, baina arrotz sentitzen naiz beti.
- Jaungoikoari esker, iritsi nintzenetik lanean egon naiz, baina haur bat utzi nuen han, eta izan ditudan arazoengatik bost urtez itxaron behar izan dut hona ekartzeko, ilegala nintzelako. Orain dela gutxi arte lan egin dut, aurtengo martxora arte, orduan etorri baitzen semea. Etorri nintzenean barruko langile gisa egon nintzen etxe batean, bi urtez, baina orain ez, lanik gabe geratzeko banintz –Jaungoikoak lagun nazala- ez nintzateke barruko langile moduan berriz arituko.

Ondo baino hobeto dakite beren lanpostuak langile autoktonoek nahi ez dituztenak direla; badakite, halaber, interes sozial handiagoko lanpostuak eskuratzea oso zaila izango zaiela. Badakite gizarteak baloratzen dituen lan mailetara iristeko eta hemengo langileekin lehiatzeko ahaleginek gaitzespena sortzen dutela bertoko gizartean. Orobat, gatazka ageriko bihurtzen da prestazio eta zerbitzu sozialak eskuratzen dituztenean, hots, osoko hiritar gisa dagozkien eskubideak erabiltzen dituztenean. Zalantzarik gabe, guztiak uste dute jarrera arrazistenak babes sozialeko etxebizitza eskuratzen saiatzen direnean agertzen direla, nahiz eta jarrera hori mozorrotzen den, esanez hemengo biztanleriak lehentasuna izan behar duela etxebizitza eskuratzean.

Bada hemengo biztanleriari leporatzen zaien zerbait, batez ere Hegoamerikatik datozen emakumeen aldetik, hots, ahaztu egiten dutela beren herria oraingo immigranteen jaioterrira emigratu zela iraganean, eta han askoz ere hobeto hartu zituztela haiek orain egiten dutena baino. Immigranteari urrunetik begiratzen diote, aldi baterako etorri den arrotza baten moduan, hau da, hemen geratzeko bokaziorik ez duen jendea balitz bezala. Mesfidantza hori etxebizitzaren kontuari lotuta agertzen dira gehienbat, auzokideek eta etxebizitzaren jabeek haien bizimoduaz egiten duten kontrol zorrotzean; hainbat gauza kritikatzeko dizkiete: zarata egiten dutela, pilatuta bizi direla, jaiak egiten dituztela, janaria egitean usainak sortzen dituztela...

- Niri, batzuetan, kafe bat arin ez ateratzeagatik... sartu berria nintzenean, bada, haiek esaten didate: “kanpotik datoz espainiarroi lana kentzera, zeren eta, begira... nire ilobak eskaria egin du etxebizitza babestuetarako, eta ezer ez; pribilegiatuak horiexek dira, kanpotik datozelako”.
- Badirudi geu..., ez dakit, inpresio hori dut, uste dut nazionalek nahi ez dituzten lanak egiten ditugula guk. Adibidez: ordutegia. Neuk 11 lanordu egiten ditut, egunero, sartu nintzenean 660 euro kobratzen nituen, zortzietatik zortzietara jardunez, eta harekin izan nuen elkarrizketan haurrei buruz hitz egin genuen
- Batzuetan biltzen gara, neuk familia handia dut hemen, 20 senide inguru gara, eta etxean sei edo zazpi elkartzen gara hitz egitera; bada, behetik berehala hasten dira joko, baina bada bikote espainiar bat, hiru haurrekin, eta haurtxoek aulkiak arrastatzen dituzte, andreak zarata egiten du bere takoiekin, jaunak ozen-ozen jartzen du telebista, eta geuk ezin diogu ezer esan berari, zeren hori ez baita normala, baina beheko andreak bai egin dezake

Garbi ikusten dute lehendabiziko borroka legezkotasuna eta paperak lortzeko izan zela, eta lortu dutenean nolabait arintzen dira, gizartearen aurrean azalera daitezkeela pentsatzen baitute. Legez kanpo

egon zirenean, aldiz, esplotazioa eta abusua handiagoak ziren, eta, hortaz, beharrezkoa da eremu ezkutuetatik irtetea.

Familia biltzeak ilusioa sortzen du eta bizi-kalitatea hobetzeko nahia berpizten du, lan egiteko eta seme-alabentzako bizimodu duina lortzeko. Familia harrerako gizartean elkartzea lortzen denean desagertu egiten da emakume horiek hasieratik pairatzen zituzten estresaren eta larritasunaren zati handi bat.

- Biok eramaten dugu, ahal dugun moduan; futbolekin jokatu du, eskolan ikusi zuten nola jokatu zuten, eta hori da berari lagundu ziona. Eta, bada, horrekin guztiarekin, futbola, eskola, nire lana, garbiketara, horrela amaitzen dut berarekin; bederatzietan dutxatzen dut, oheratzen dut eta hamarretarako afaltzen egoten naiz, zeren bera afaltzen ikusteak berak betetzen nau, hau da, nire ez zait inporta ez jatea ez ezer, berdin dit bizitza osoak, nolabait, baina uste dut makina bihurtzen garela, nolabait.

- Batzuetan, etxera noanean eseri eta zera esaten dut: zer gertatzen ari zait?, zergatik naiz horrela?, edo gurasoekin hitz egitean, oraindik esaten diot: “amatxo, maite zaitut, biziki maite zaitut”, baina gozotasun hori hasierako gozotasun hura ez dela sentitzen dut.

Harrerako gizartera egokitzeko prozesu horretan, emakumeek –haiek bakarrik- aipatzen dute herri gisa zituzten desberdintasunak galtzen dituztela, hemengo gizartearen bizimodu eta harreman hotzak soilik ikastearen truke. Uko egiten diote beren jaioterrietako harremanetan azaleratzen diren gozotasunari eta maitasunari. Konturatzen dira hobekuntza ekonomikoaren bidean haien nortasunaren eta desberdintasunaren zati bat galtzen ari direla. Aldaketa horretan badira hobekuntza sozial eta ekonomikoko alderdi asko, baina haien kulturaren alderdi humanistenak galtzen dira horren truke.

4.2.2.- Laneko segurtasuna eta osasuna

Familia-arduraren karga handiak lehen aipatutako autoesplotazioa bultzatzen ditu emakume immigranteak, eta horrek estresatuta sentiarazten ditu eta antsietate nabaria ekartzen die batzuetan; antsietate hori handiagoa da beren jaioterrietan seme-alabak dituzten eta familia batzearen alde borrokatzen diren emakumeen kasuan. Horretarako, laguntza psikologikoa eskatzen dute absentiara ohitzeko eta familiako dolua urrunetik bizitzen jakiteko, eta, halaber, laguntza sozialeko sarerik gabe eta inkomunikaturik bizitzera ohitzeko... Osasun mentalerako arreta hori, haatik, nekez lor daiteke Nafarroako osasun sistema publikoan. Hurrengo testuak erakusten du bi alderdien artean mugitzen diren emakumeen barneko eztabaida, bertoko bizitzak eta han galdutakoak sortzen duen anibalentzia.

- Hemengo bizimodua ona da... inorekin liskartu ezean lasai bizi gaitzke, hori bai, lan egiten dugunarekin eta gure beharrekin bizi gaitzke lasai, baina han beste bizitza bat ere badugu, eta horrela gaude. Nik, gutxienez, badut han nire jendea, beti nire ardurapean dagoena, eta ezin dut ezta lanegun bat ere galdu, badakidalako egun hori ere baliagarria zaiela han. Orduan, nire familia osatu nahi dut hemen, baina aldi berean nire jendea han dago, orduan, aurrera egitera etorri gara hona handik, baina aurre-rabide hori osatu gabe dago beti. Neu horrela sentitzen naiz.

Egoera mental horrek lo egiteko arazo larriak sortzen ditu, eta baita nekea ere, lan batzuk egin bekar izateak dakartzan ondorio fisikoengatik. Lanak atsekabea sortzen die alor intelektualean, zeren prestakuntza handiagoko lanak egiteko prestatuta daudela uste baitute; ziur daude harrerako gizartean egiten dituzten lanak ez lituzketela egingo beren jaioterrietan. Titulazio eta ikasketen homologaziorik eza harrerako gizartearen defentsa tresna gisa ikusten dute, hau da, immigranteen igoera sozial eta profesional eragoztera zuzendutako tresna gisa.

Zerbitzu sanitarioen erabilerak arazoak sortzen ditu lanean, batez ere etxeko lanen sektorean; horren ondorioa da langileak ez direla joatean zerbitzu sanitarioetara, edo urgentzien bidez joaten direla, zeren lanekoa ez den ordutegian joan behar izaten baitute. Horrez gain, emakume immigranteek diote ez dutela ezagutzen sanitate publikoaren funtzionamendua ezta hartarako irisbidea ere, zeren haien jaioterrietan ez baita existitzen, kasu askotan; horregatik jotzen dute hainbestetan urgentziako zerbitzuetara.

- Neu gaixorik egon naiz, eta horrela nengoenean ez zidaten baimenik eman nahi izan medikuarenera joateko, ezer ez, eta lana utzi behar izan nuen, ez nuen-eta beste irtenbiderik, medikuak esan zidalako hamalau eguneko baja hartu behar nuela, baina andreak lanean jarraitzeko esaten zidan eta ni txarto sentitzen nintzen, denbora osoa kentzen zidan, zeren batzuetan ez nintzen ezta asteburuetan ere irte-ten, hurrekin geratzen nintzen, haiek bidaiak egiten zituzten eta haien kargua guri uzten ziguten.
- Hitzordu mediko bat eskatzen dugunean... hori niri ere gertatu zait, hitzordu medikoa izan dut, aurre-ko egunean esan diot, eta biharamunean joan naiz eta zera esan ditu: "bada, dei bat izan dut, nire jefea-ak deitu dit eta hitzordua duzun ordu horretan neuk badut bilera bat, eta nire jefea da". Ni begira gera-tu naiz eta esan diot: "beno, eta nire osasuna ere bada".

Harrerako gizarteak subjektu ekoizletzat hartzen ditu immigranteak, lan egiteko makinatzat, eta, beraz, haien osasun pertsonala bigarren mailako kontua da enplegatzaileentzat. Gaixotasuna bi alderdien arteko gatazka-iturritzat hartzen da.

- Bai, baina medikuarenera joan ahal izateko egundoko arazoak ditugu.
- Gure osasuna bazterrean geratzen da beti.
- Arazoa da robotak bezala ikusten gaituztela, lan egiteko makinak bezala, ez pertsonak bezala.
- Horixe da, hain justu.

Emakume immigranteek zerbitzu publikoak eskuratzen dituzten neurrian -haurtzaindegia, etxebizitza, gizarte soldata, langabeziarako laguntzak...- hemengoan baldintza berdinetan, orduan hobera egingo du haien integrazio sozialak, eta, horren ildotik, baita haien osasunak berak ere. Etxetik kanpoan eta barruan jasaten duten lanaldi bikoitzak ere badu presentzia beren nekearen eta estresaren azterketan.

Etorkizuna elkarrentzako aberastasunetik irudikatzen dute, kulturen arteko elkarketan, lehengo taldearen diskurtsoan ere gertatzen zen bezala; hizkera itxaropentsuago bilakatzen da hemen, baina egoera horretara iristeko beharrezkoa izango da bi gizarteen alderdi onak eta txarrak aitortzea.

- Nire iritziz, hemen garrantzitsuena da bi kultura desberdin elkartzen garela berriz, eta ez garela lapurtzera etortzen; aitzitik, aberastasuna ekartzera gatoz, nolabait, bai geu eta bai zuek aberastera, hau da, aberasteko hitzarmen bat da, herri hau (...) delako, zeren eta, nahitaez, barnean duzue eta herri horren zati da, pobreekin eta aberatsekin, langileekin, enplegu ziztrinekin eta enplegu bikainekin, horixe da.
 - Jardunaldi batzuk egin ziren, immigrazioari buruz gaur egun dauden planak aztertzeko. Herri osoan zortzi plan daude, baina niri arreta gehien eman zidana hauxe izan zen: jardunaldi horiek Comisiones Obreras sindikatuak antolatu zituen; Madrilgo ez dakit zein katedradun gonbidatu zuten, Bartzelonako beste bat, NUPko irakasle oso on bat, eta nik zera galdetu behar izan nuen -neu oso ahobero izango naiz, baina gauza batzuk agerikoak dira-: "hau immigrazioari buruzko jardunaldi bat bada, non daude, bada, immigranteak?".
- Eskatuko diguten iritzi bakarra 2006an eskatuko digute, zeren legeak aldatzeko modua baitute aztergai, immigranteek botoa eman dezagun; beraz, asmo sinesgaitza da, hori da axola zaien gauza bakarra, gure botoa eta gure sostengua. Gogorra, bai?

Gogorra ematen badu ere, immigranteak ziur daude harrerako gizarteak kontuan hartuko eta entzungo dituela bozkatea ahalbidetzen dieten eskubideak lortzen dituztenean. Hori horrela izan ezean, ez da ulertzen nola immigrazioaz eztabaidatzeko egiten diren jardunaldietan unibertsitateko adituak soilik agertzen diren, interesatuak berak –immigranteak- foro horietatik kanpo utziz.

4.3.- Garraioa

4.3.1.- Testuinguru orokorra

Garraioa langileen taldean paketeak banatzeko zerbitzuetako autonomoak, garraio txikiko gidariak, ibilbide finkokoak eta aldakorrekoak, eta trailer-gidariak elkartu ziren, eta, horren eraginez, batzuetan oso egoera bereziak aurkeztu ziren jarduera bakoitzean. Hala eta guztiz ere, azterketa honen xedeak behartuta, haien jardueretako egoera komunak lehenetsi dira.

Eztabaidarekin hasteko, harrerako gizartearen eremua mugatzeari ekin zitzaion. Taldea biziki aktiboa da haren deskribapena egitean eta Foru Komunitateko lanaren egoera determinatzen duten aldaketa kulturalak azpimarratzean. Harreman sozialak eta afektiboak haien jaioterrietan baino murriztagoak dira hemen; garraiolarien diskurtsoan atzerritarrenganako errespeturik eza aipatzen da berriz; jarrera hori immigrante guztiek aipatzen dute saio guztietan, batez ere Afrikatik datozenek. Bada nolabaiteko diskriminazioa, baina horrek baditu anibalentziak: immigrantearen jarrera otzana izanez gero, onarpen soziala handiagoa da. Immigranteak hobera egiten badu gizartearen edo lanaren alorrean, aldiz, edota desberdintasunezko egoerak salatzen baditu, egoera horrek gaitzespena sorten dute autoktonoen artean. Arrotz sentitzen dira haiena ez den leku batean, baina uste dute egoera hori aldatu egingo dela beren ondorengozat, baldin eta harrerako gizartean biltzea lortzen badute.

- Nik ia zazpi urte daramatzat hemen, eta leku askotan gaitzespena sumatu dut atzerritarra izateagatik, baina jendearekin egokitzapen ona ere izan dut, oso ondo hartu naute.
- Espainiara etortzera bultzatzen gaituen arrazoietakoa bat gure familiak mantentzeko dirua lortzea da; are gehiago, gutariko batzuek bananduta dugu familia, hau da, batzuk hemen gaude eta beste batzuk gure jaioterrian, eta, beraz, urrunduta alor afektiboan.

Garraioa langileen diskurtsoan bada behin eta berriz agertzen den ideia bat, alegia, ordainketa ekonomikoagatik –hori handia izan arren- ez dela ahaztu behar pertsonen harreman adeitsua eta tratua onerezi dituztela, haien jaioterria zeinahi delarik ere. Enplegatzaile batzuek ez dituzte langileak pertsona integral moduan tratatzen, baizik eta arimarik gabeko langile-makina bezala. Enplegatzaileen eta enplegatuen arteko harreman humanistagoa eskatzen dute, eta hori gizartearen gainerako eremuetara ere eraman beharko litzatekeela uste dute.

- Gizon horrek behin tratatu ninduen..., eta diru asko irabazten nuen; orain dela lau urte diotsut. Hemengo berrehun eta hogeita hamar edo berrehun eta berrogei mila pezeta irabazten nituen, hori soldata ederra zen, diru asko, eta niri egun horretan oso txarto tratatu ninduen, automatikoki: "sinatuko didazu?, banoa eta". Eta pertsonal buruak: "ondo pentsatu, gogoan izan zein ondo irabazten duzun"; "nola?". Inongo dirutzarik handiena irabazten egon naiteke, baina errespetatu behar nauzu, pertsona moduan tratatua izatea oso garrantzitsua da". Hemen bada tratua txar handia.
- Neuk ere, (...)en lan egiten dut; ez dakit komentatu ote nuen, pertsona hori oso pertsona ona da, edozein gauza gertatuta ere, altzari bat edo, honegatik edo horregatik, altzariren bat jausten bazaizu eta hondatzen bada, edo marratzen bada, beno, ez da egunero gertatzen, baina berak esaten du: "lanaren kontu arruntak dira, zer egingo diogu ba?", baina bera konpontzen saiatzen da, zeu gaizki sentiarazi gabe.

Gainerako talde-dinamiketan gertatu den bezala, lana da hona erakarri dituen faktorea, eta, beraz, haien diskurtsoaren ardatza; lanik gabe, gainerako gaiak ez dute inolako interesik edo zentzurik. Lanak immigrante bihurtu ditu, haien jaioterriko gizartearen egoera kaskarrak bultzatuta; lan merkatua hobe izango balitz, itzuli egingo lirateke, edo, besterik gabe, ez ziren etorriko. Hortaz, immigrante ekonomikoak direla azpimarratzen dute (nahiz eta batzuk arrazoi politikoengatik ere etorri diren). Haien jaioterrietara itzultzeko ideiak hor dirau, baina seme-alabak dituztenek ez dakite ea horiek itzuli nahi izango ote luketen.

Diskurtsoan zehazten da, berriz ere, immigranteen esku dauden lan aukerak murriztak direla, hau da, hemengo biztanleriak nahi ez dituenak soilik eskaintzen zaizkie. Alde horretatik, garraioa da nahi gabeko sektore horien taldean sartu diren azkenetako bat.

- Diru apur bat biltzeko aukera izanez gero, aurreztuko nuke eta nire herrira joango nintzateke bizitzera, zeren ez bainaiz ohitu hemengo bizimodura. Oso desberdina da, batez ere alderdi sozialean; hemen ia makinak gara, egun osoa lanean ematen dugu, larunbatetan, igandeetan, espainiarrek egin nahi ez duten guztia egiten dugu. Ez dugu oporrik, zeren ia autonomo moduan lan egin behar baitugu, eta ezin dugu oporrik hartu. Gauza mekaniko baten modukoa da, lan eta lan, ez dugu-eta ezta dibertitzeko astirik, familiarekin egoteko, zeren hemen bizi denak askotan ez baitu denborarik ateratzen senideekin egoteko, lan egin behar duelako eta hori guztia.

Gainera, immigrazioa sufrimendua da familia jaioterrian utzi behar delako, gutxienez hasieran, eta, beraz, immigranteak ez du familiak ematen duen sostengu afektiboa; dena dela, azken batean, bera da indarra ematen duena lanaren eguneroko borroka gogorrean jarraitzeko.

Soldata injustizia ugariren eta gaizki ordaindutako lanordu askoren emaitza da; sufrimendu horiek soldata duina lortzearen truke eramaten dira. Horrek bultzatzen ditu asteburuetan eta jaiegunetan lan egitera, eta baita segurtasunik gabe eta arrisku pertsonaleko zirkunstantzietan ere. Ondo baino hobeto konturatzten dira beren burua esplotatzen dutela, hori beharrezkoa delakoan.

Kolektibo horren diskurtsoa gainerako kolektiboena baino kritikagoa eta errebindikatzaileragoa da: "ez dugu makurtu behar abusuaren aurrean; bidezkoa dena exijitu behar dugu". Dena dela, enpresariak badute estrategia zorrotz bat sektore horretan isilean dagoen gatazka indargabetzeko: garraioa garraiolari autonomoz baliatuz berrantolatzea. Garraiolari autonomoak ez du beste aukerarik, kontratatzaileak edo bitartekariak ezartzen dizkion baldintzak eta prezioak onartu baizik, batez ere kontuan hartzen badugu garraioaren sektorean oso lehia gogorra dagoela, bai legezkoa eta bai legez kanpoko.

- Hemengo lagun honek dioen gauza bakarra da ordainketak txarrak direla, soldata arrunt bat irabazteko ordu asko sartu behar direlako; eta hori niri tokatzen zait, zeren eta, askotan, igandeetan ere hartu behar izaten baitut kamioia eta Gasteizera edo beste nonbaitera abiatu.

- Batzuek egingo dute, baina neuk ez dut egiten, gutxienez, nik ez dut abusurik onartzen: ez badidate nire lana ordaintzen nire lana, bada, ez dut lan egiten eta kitto, eta ez dago besterik: alde egiten dut; neuk badudalako aukera hemen lana bilatzeko, gai sentitzen naiz lana beste nonbait topatzeko; beste batzuek, ordea, ez dute hori egiten, ito egiten dira, hemen geratzen dira, zapalduta.

- Pertsonak ez dizutela egokitzen lagundu nahi? Bada, zeu saia zaitez egokitzen eta zeure burua defendatu; ez dezatela pentsatu haiek eskaintzen dutena onartu behar duzula, atzerritarra izateagatik eta hemen egoteagatik; ez, eskaintzen dizutena ez, ordaindu behar dizutena baizik.

Gidari gisa jaioterrian izandako esperientzia ere ez da baloratzen; immigranteek onartzen duten gabezia bakarra da, hasieran, hiria edo bideak ez ezagutzea; gidatzen ohituta dagoenari, baina, ez zaio asko kosta-

tzen lan-eremu berrira egokitzea. Gainera, taldekoek diotenez, ordainketa zerbitzuagatik da, ez gidatze-orduengatik. Salatzen dutenez, atzerriko gidariei hemengoei baino gutxiago ordaintzen diete kontzeptu guztiengatik. Halaber, immigrantea kexatzen ez bada, ibilbiderik txarrenak eta errentagarritasun txikienekoak ematen dizkiote. Garraiolariak talde-bileran esandakoaren ildotik, garraioaren sektoreko egoera abuzkoa dela esan daiteke; dena dela –diote-, gidari nazionalentzat ere ez da jarduera errentagarria.

- Enpresa batera joan eta zera esaten badut, “neu trailer-gidaria naiz”, berdin da trailer bat Kolonbian zein hemen hartzea, hau da, esperientzia badut, desberdintasun bakarra errepideak dira. Enpresa batera iritsi eta lana eskatu, eta hauxe esaten didate: hemengo hitzarmenaren arabera, soldata bi mila eurokoa da, adibidez, edo bi mila eta bostehuneko, baina zeuk ez duzunez esperientziarik eta ez dakit zer, hasieran mila eta bosthun emango dizkizut, eta ondo aritzen zarela ikusten dudan neurrian soldata igoko dizut.

Enpresa askotan ikusi dut nola gutxiago ordaintzen duten langilea atzeritarra delako; hala, hauxe esaten dute: “ez zaitudanez ezagutzen, hemengoa bazina, edo hemen lanean ibili bazina, hemen hauxe ordaintzen dizut”, hau da, hori garraioaren sektoreko enpresa askotan bizi izan dut, eta beste sektore batzuetan; hemen sentitu dut.

Bidaien eta entregaren prezioa ez omen da igo azken urteotan. Autonomoei pakete bakoitzeko ordaintzen diete, horren pisua edo tamaina kontuan hartu gabe. Kilometroaren arabera ordainketa azken urteotakoaren azpian dago, nahiz eta erregaiaren prezioa etengabe igo den aurten. Egindako kilometroen arabera ordainketak kuestionatuta daude gaur egun; horren truke, entregatutako paketearen arabera ordaindu nahi da, gauzak sinplifikatzeko. Halaber, nazioarteko ibilbideak nazionalen prezio berean ordaindu nahi dira, gidari immigranteen iritzia kontrakoa izan arren, bai lanaren erantzukizunagatik eta esfortzuagatik eta bai gasolioaren prezioa Europan handiagoa delako. Ibilbidea egiteari uko eginez gero, erantzuna kale-ratzetik gertu egoten da.

Profesionalak ibilgailuaren gastuak hartu behar ditu bere gain, garraio-txartela, konponketak, ibilgailuaren erabilerak dakarren desgastea eta, urte batzuk igarota, ibilgailu berri bat eskuratzea. Orobat, konponketen eraginez ibilgailua geldirik dagoenean, lanik ez egiteak dakartzan galerak nabariak dira eta inork ez ditu bere gain hartzen.

- Bagenuen bidaia bat, Gasteizera egunero egiten zena eta miseria hutsa zena, hau da, garraio-agentzia enpresa batekin zuen konpromiso bat zen, bidaia hori egunero egiteko, Gasteizera –adibidez-, eta 70 euro gehi BEZa zen; orduan, zer gertatzen zen? Gasteizera geu bidaltzen gintuzten, egunero eta ia denbora osoan, 20 bidaia ziren hilean; berak 10 egiten zituen, neuk zortzi eta beste biak beste gidari batek.

Egun batean buruarengana joan eta zera esan nion: “neuk ez dut gehiago egingo bidaia hau, dirua galdu baino ez baitut egiten”; “bada, egiten ez baduzu kalera zoaz”.

- Orain ez dute ia ezer ere ordaindu nahi, zeren ez baitute kiloan arabera ordaindu nahi; lehen kiloak kobratzen ziren, kilometroak, eta orain ez dute kilometrorik ordaindu nahi; pakete baten entregaren arabera ordaindu nahi dute, eta berdin die paketea etxe bat bezain handia den edo botilatxo baten adinakoa

- Gutunazal bat pakete handi bat bezala.

- Zeren lehen, adibidez, orain dela hiru urte, neu hasi nintzenean, hauxe kobratzen genuen: “kilometroa 0,40an ordainduko dizut”, ulertzen duzu?; orain, aldiz, enpresa batzuek 0,30 edo 0,29 ordaintzen dute.

- Guri 0,24 ematen digute, eta paketeak ordaintzen dizkigute... Neuk bi urte daramatzat hemen, eta etorri nintzenetik 1,11 kobratzen dut pakete bakoitzeko, eta etorri nintzenean gasolioaren litroak 0,59 balio zuen, eta orain ia euro bat, eta berdin ordaintzen digute, lehen bezala.

- Hori egiten dizutenean hauxe esaten dizute: fakturazioan ikusiko dugu; bai, fakturazioan ikusiko duzue, 100 kilo kargatzen badituzu, 2000 kilo kargatzea bezala da; haiei berdin die. Eta kilometroei dagokienez ere, gauza bera; neu, esate baterako, Alemaniara joan nintzen bi aldiz gasolioa 0,75ean zegoenean. Alemanian gasolio-depositua bete behar izan nuen, 1,12 eurotan, eta hemengo prezioan ordaindu zidaten.

Garbi ikusten da enpresek abusuak egiten dituztela alor guztietan, eta, hala, egoera horiek guztiak arautzera zuzendutako legezko araudi bat eskatzen da. Garraioaren elkarte profesionalak ez dute konpromisorik hartzen gai horretan; sindikatuek ere ez dute presentzia handirik sektore horretan. Arbitraje-batzordeek atzerapenez eta txarto funtzionatzen dute, eta gainera konplexua da bidaiak ematen dizkizun enpresaria salatzea, zeren orduan ez baitzenuke lan egiterik izango sektoreko ezein enpresa edo agentziarentzat.

- Eta garraioaren alorrean, orain jendea dago... bada abusu itzela, eta jendea oso zapalduta dago, eta ez atzerrikoak soilik; neuk garraioaren sektorean ari diren hainbat espainiar ezagutzen ditut, eta asko sufritzen ari dira kontu horregatik, ez dagoelako kontrolrik, beno ...badago hitzarmen bat, eta baditugu arau batzuk, baina ez dituzte betetzen, bost axola zaizkie...

Gainerako saioetan gertatu izan den bezala, garraioaren sektoreko langileek ez dute kultura sindikalik; gainera, diotenez, ez dute sindikatuei buruzko informaziorik, batez ere langile autonomoen kasuan. Gatazkarik sortuz gero elkarte profesionaletara jotzen dute, nahiz eta gutxi diren elkarten munduan sartuta daudenak. Gai sindikala gutxi samar interesatzen bazaie ere, abantailarik egonez gero afiliatuko liratekeela aitortzen dute, planteamendu pragmatiko huts batez. Erakunde profesionalei eta sindikatuei zera eskatzen diete: lan baldintzen hobekuntzan eta haien kontrolean lan egin dezaten, eta, halaber, segurtasunean eta laneko arriskuen eta istripuen prebentzioan, eta lanbide-prestakuntzan; horrekin batera, garraio sektorea-arentzat prezio bidezkoak lortzen sai daitezen eskatzen diete.

Sektorearen barnean bada lehia desleiala: badira furgoneta eta kamioi piratak, garraio-txartelik gabe aritzen direnak, Gizarte Segurantzari kotizatu gabe, eta abar. Illegalen egoera hori oso ondo kontrolatuta dago Euskal Autonomia Erkidegoan, baina oso gutxi Nafarroako Foru Komunitatean. Garraio-txartela eta azterketa dirua biltzeko beste tresna bat da Administrazioarentzat, eta pertsona asko horren mende daudelako mantentzen da. Lehia legezko garraiolarien artean ere agertzen da, zeren ustiapen-bidaiak hartzen baitituzte beste batzuek utzi dituztenean, edo presioa egiten dute kontratatzailearen edo agentziaren aldetik hobekuntza ekonomikoak lortzeko.

- Txarrena da ez digutela gehiagorik ordaintzen, hauxe esaten dutelako: zeuk ez baduzu egiten, orduan beste batek egingo du; beraz, exijitu nahi baduzu ezin egin dezakezu. Horregatik aprobetxatzen dute eta txarto ordaindu.

- Bada gauza bat: guk geuk kalte egiten diogu elkarri. Neu bizi nintzen etxean, nire andreak eskailera garbitzen zuen eta 40 euro ordaintzen zizkioten urtean, hau da, hilean lau aldiz. Orain -barkatu esatea-, berriz, Ekuadorko andre bat etorri da eta 27 euroren truke egiten du lan hori.

- Haiek ez dute zergarik ordaintzen, ez dute gizarte segurantzarik ordaintzen, ezta autonomo moduan ere, ez dute garraio-txartelik ez gestoriarik ordaintzen. Gestoria ere bada gastu bat, 60 euro kobratzen dizute-eta hilean.

- Azterketara 600 pertsona aurkeztu ziren, eta haietatik 50k soilik gainditu zuten. Orduan, 600 pertsonak 700na euro ordaindu dituzte. Zenbat diru sortzen du horrek? Eta 50k soilik gainditzea, ez da logikoa.

- Honen adinako bulego bat dute. Guztiok autonomoak gara eta kamionetak gureak dira. Gehienak errotulatuta daude, eta ez dakizu zelako liskarra izan nuen errotulazioaren kontuagatik. Ez nien utzi nahi, ez eta ez, eta urtebeteko kontratua artean ere bete gabe zegoenez, zera esan zidaten: errotulatu edo alde egin, zeuk ikusi.

Bukatzeko, bada aipatu zen beste arazo bat, alegia, agentzien bitartekaritza garraiolari autonomoarentzat; agentziek ez dute ibilgailu propioirik; bulego bat eta mantenimendu kostu txikiko zerbitzuak baino ez dituzte. Agentzia horiek garraioaren ordainketaren %30 edo %35 atxikitzen dute, gutxienez. Gainera, batzuetan haientzat soilik lan egitea exijitzen dute, eta kamioia edo furgoneta haien logotipo, kolore eta irudi korporatiboarekin margotu behar dira, eta hori guztia garraiolariak ordainduta.

4.3.2.- Laneko Osasuna eta Segurtasuna

Sektorean ez dago inolako informaziorik edo prestakuntzarik segurtasunari buruz, ezta gidatze-lanaren arriskuei eta horrelakoei buruz ere. Gai horren inguruan jasotzen den informazio bakarra garraio-txartelaren azterketakoa da, edota gidatze-baimenakoa. Ibilgailu astunekin aritzen diren garraio-enpresetan informazio gehiago ematen zaie langileei paketeak garraiatzeko sektorean baino.

Bidaietan ahalik eta errentagarritasunik handiena lortzeko presioak bultzatuta, gidariak joan eta etorriko ibilbideak egiten dituzte atsedean hartzera gelditu gabe; bidaia luzeak egiten dituzte, gaeuz, atsedetik hartu gabe eta jan gabe... Egoera hori "paketeria expres" sektorean gertatzen da gehiago. Kamioiekin egiten diren bidaietan, aldiz, jokabide arriskutsu hori txikiagoa da takografoen kontrolagatik eta atsedean hartzera gelditzea derrigorrezkoa delako. Poliziak alor horretan egiten duen ikuskapena araudia betetzera behartzen ari da gai batzuetan, hala nola atsedenetan, abiaduran, garraioaren pisuan edo alkohol kontsumoan.

- Autonomo moduan, furgonetarekin bada arrisku handia, bidaia expresekin lan egiten delako asko, hau da, adibidez, neu Santiagorantz abiatzen naiz gaur, 700 edo 800 kilometro ditut eta hodi hori eramane behar dut han behar dutelako, eta gau osoa ematen dut bidaiari. Hara iritsi, deskargatu eta itzuli egin behar dut, zeren han geratzen baldin banaiz egun osoan, atsedean hartzen, orduan egun hori galtzen ari naiz, zeren hemen egon behar baitut, lanean.

Enpresen alorrean, adibidez trailer-garraioan, ez da hori gertatzen, atsedean mugatu batzuk badituztako, hau da, trailerraren gaia aztertu baduzu... diskoa erabiltzen da, eta diskoak lau ordu eta erdiko lana du, eta gutxienez 45 minutuko atsedendiak.

- Hemen zerbait irabazteko jo ta ke aritu behar duzu. Autonomo moduan, zortzietatik zortzietara lan egiten da, normalean. Ibilbide finkoa izanez gero eta ondo antolatuta egonez gero, orduan bazkaltzera joan daiteke; bestela, ibilbide berri batekin hasten ari zarenean, kontu egizu astean gutxienez bi edo hiru egunetan ez duzula bazkalduko. Behin edo bitan bazkalduko duzu; gainerako egunetan, bokata bat hartu eta gidatzen duzun bitartean jan behar duzu.

Garraioaren lan jarduerak estresa eta beldurra sortzen ditu, zeren enpresek ibilgailua gehiegi kargatzera behartzen baitute, indarrean dagoen araudia urratuz. Horren eraginez, istripuak pairatzeko arriskuak gora egiten du, bai ibilgailua balaztatzean eta bai gidatzeko lanean bertan; poliziak kontrolatzen zaitu, baina enpresak ez ditu isunak bere gain hartzen, eta, gainera, desgastea handiagoa da (balazta-pastilak, motel-gailuak, gurpilak...) eta ibilgailuaren konponketak garestiagoak. Lasaitasunagatik hobe izango litzateke enpresa baten barnean lan egitea, kontratuarekin, baina egoera hori gero eta gutxiagotan aurkitzen da, zeren eta, enpresarien jarrerak behartuta, sektoreko langileen artean gero eta handiagoa baita autonomoen presentzia.

Mutuen jardunak atsekabe garbia sortzen du langileen artean. Haien aukeraketa derrigorrezkoa izateaz gain, ez dute ezer ere egiten prestakuntzaren eta prebentzioaren alorrean, eta haien interes bakarra da gaixotasunagatik edo istripuagatik dauden langileen artapen medikoa eta haien kontrola. Langile autonomoei ematen zaizkien prestazio ekonomikoek ez dira aski lan kostuei eusteko, eta, beraz, kasu gehienetan lanean jarraitzen dute gaixorik egon arren, horrek arrisku pertsonal nabaria ekarri arren. Mutuen jardueran gehiegizko presioa eta kontrola antzematen dira, eta hori ez dator bat langile autonomoei bajagatik ordaintzen zaizkien prima ziztrinekin.

Gaixotasunaren edo istripuaren bizipena ez da osasunaren alorrekoa, ekonomikoa baizik; bizipen problematiko hori garbi islatzen da taldean sortutako adierazpide honetan: "gaixorik zauden bitartean, furgonetaren letrek iristen jarraitzen dute".

- Autonomoa zarenean Mutua batean sartzera behartzen zaituzte; laneko istripuren bat pairatuz gero, bost, sei edo zazpi hilabetez bajaran egon behar baduzu, alor medikuan atenditzen zaituzte, hau da, horra zoaz eta artatzen zaituzte, familia-medikuarena zoaz, espezialistarengana bidaltzen zaituzte, denetarik egiten dizute. Autonomoak laneko baja hartzen baldi badu, mutuak 560 edo 570 euro ordaintzen dizkio hilean, batez beste.

Konfiantzazko harremana familiako medikuarekin izaten da, harengana joateko denborarik ez geratu arren, zeren gaixotasunak kalte ekonomikoa baitakar, eta langile immigranteak dira lan egiteko interesik handiena dutenak. Hiru taldeetan ahozko formula berbera erabiltzen da zailtasunei aurre egiteko: "eutsi". Zalantzarik gabe, aztertutako hiru taldeen diskurtsoan autokontrol handia dago bidegabekeriaren aurrean; epe luzera, baina, jarrera horrek eragina izan dezake biztanle immigranteen osasun mentalean.

Langileek berek aitortzen dutenez, lanetik ondorioztatutako arazoak sortzen direnean, familiako medikurengana joateaz eta ahal den moduan "eusteaz" gain, etxeko sendagaiak ere erabiltzen dira ondoezari aurre egiteko.

- Familiako medikuarekin zeuk bultzatzen duzu, zeren Mutuak sendatzera behartzen baitzaitu, lanera itzultzera, Mutuak ez dizulako ordaindu nahi ordaintzen dizuna. Zeu ikuskatzeko hitzorduak ematen dizkizute, "nola sentitzen zara?"; hori esateak lanera bidaltzeko gogoia adierazten du. Begiratzen dizuten lehenengo gauza da ea lan egiteko gauza zaren..

- Neuk, hemen nagoenetik ez dut medikua ezertarako erabili. Batzuetan zer edo zer izan dut, gauza txoren bat, baina eutsi egin behar izan diot, zeren eta... edozein kasutan eutsi egin behar diogu, ezin baduzu... ezin baduzu baja hartu, bestela ez duzulako irabazten...

- Begira neuk hankarekin, orain, iragan astean, azken hiru egunetan eraman behar izan dut horrela, eta lan egin behar nuen ez nuen medikuarenera joaterik. Jakina, batzuetan neuk sendagairen bat hartzen dut, aurrekoetan egindakoa; orduan mina kentzekoak hartzen ari nintzen, eta zerbait egiten zidaten

- Etxeko sendagaiak.

- Gripea ez da besterik, beno, nire kasuan gure herriko pattrarra hartzen dut, tako bat eta gauean arropa berok jantzita, eta biharamunean hobeto zaude, bizkortuago.

Lanak sortutako estresa eta antsietatea alde batera utzita, langile horiek min fisikoak ere pairatzen dituzte –diote-, batez ere bizkarreko mina eta lumbagoa. Min horiek paketeak kargatu eta manipulatu behar dituztelako sortzen dira, zeren gehieneko pisuak ez baitira errespetatzen; enpresa jakin batzuek soilik dituzte gehieneko pisuak manipulaziorako. Gainera, eskorgak, garabiak eta gisa bereko laguntza-tresnak ez dira behar bezainbeste erabiltzen; aitzitik, eskuz kargatzen eta deskargatzen da, ibilgailuaren geldialdiak ahalik eta gehien laburtzeko. Halaber, badirudi informazio gutxi dagoela babes-arropari eta pisuak manipulatzeko protokoloiei buruz.

- Eta, batez ere garraioalari aldetik, gehien pairatzen ditugun arazoak bizkarrezurrekoak dira; esfortzu handiak eginez gero lumbagoak jotzen gaitu eta... zergatik?, ez dugulako inolako babes-ekiporik, jarrera zuzentzeko tresnaren bat edo horrelako zerbait

Enpresek etengabe aldatzen dituzte bidaien ordutegiak, gidariak eta ibilbideak, eta, beraz, ibilbideak ez eza-gutzeak handitu egiten du istripuak pairatzeko arriskua, batez ere autonomoen kasuan, bidaia ahalik eta arinen egin behar dutelako.

Bukatzeko, aipatzekoa da bi direla garraioaren sektorean lanean jarraitzea bultzatzen dituzten itxaropenak: haien jaioterrira noizbait itzultzeko ideari etorkizunean enpleguz aldatzeko gogoia elkartzen zaio, nahiz eta horrek oraingoz –behintzat- konplexua dirudien. Gure mintzakide askori gertatzen zaien bezala,

langile hauek ere badituzte ikasketak eta prestakuntza kualifikazio handiagoko enpleguetan aritzeko; homologazioa, baina, asko kostatzen da. Lanaren ezaugarriak eta ordutegiak ere oztopo nabariak dira prestakuntza-eskaintzara jotzeko.

Diskurtsoaren alderdi positiboena da norberaren kontura lan egiteak satisfazio batzuk ekartzen dituela, hala nola nolabaiteko independentzia izatea eta enpresa jakin batzuekin lan egiteko erabakia hartu ahal izatea.